

# BERTSOLARI

A L D I Z K A R I A

23. ZENBAKIA / 1996 UDAZKENA / 750 PEZETA

XALBADOR HIL ZELA  
20 URTE

ANDONI EGANA  
DEZIMISTERIKIN  
BERTSOLAKITZARI TXEKEOA  
GURE HARPIDEEN ARGAZKI  
ROBOTA

# Emazteen

IKUSPEGIA



# B

## Emazteen ikuspegia



### BI HITZ

URTABEAK IZATEN DIRA, BAZUTAN ONAK, BESTETAN TXARRAK. AURTENGDA EZ DA GUREKIN GAIZKI PORTATU. UDAZKEMENO ALE HAU PITIN BAT BERANDU HELDU DA, BAINA UZTA EDERREZ BETEIA DATOR. BERTSOLARIEN

EMAZTEEKIN EGIN DUGU TOPO ATARIAN. TALDADOREN HERIOTZA GOCORATU DIGU HAREN ALARGOITSAK, LEONIK, SARREDAN. ANTONI EGARIA ETA KOLDO TUPAREKIN MEDIKORA EGIN ZUTEN BIRNAZ MINTZATU GARA SUKALDEAN. BERTSOLARITZAREN OGASUNARI TXEKED BAT EGITEN SAHATU GARA GONBIDATUEN GELAN. GURE HARPIDEEI ANGAZKIAK HERRA DIZKIGU ETA BERTSOLARIEN APOSTU FIRMATUEZ HITZASPERTU BAT EGIN DUGU AZKENIK POSTRE GISA. **ON EGIN DIEZAZULA.**

E S K E R O N E Z

BI DIRU-SARRERA BAKAR DITU ALDIZKARI HONEK. ERAKUNDEEN LAGANTZA BATETIK. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA EUSKO JAURLARITZA NABARMENTZEN DIRA AHALEGIN HORRETAN. BI ERAKUNDE HORIETATIK LEHENAK LUZATU DIGU URTEKO LAGUNTZA: 830.000 PEZETA. IAZ BAINO GUTXIXEAGO BADA ERE, BIHOTZEZ ESKERTZEN DIEGU ERAKUTSI DUTEN BORONDATEA. BIGARREN DIRU-ITURRIA ETA NAGUSIENA, HARPIDEOK ZARETE. HERRIZ HERRI ABIATU DUGUN KANPAINAK (OIARTZUN, ZARAUTZ, AZPETTIA ETA LEKETTION EGIN DUGU) IZUGARRIZKO EMAITZAK EMAN DIZKIGU. MILA ESKER, BERAZ, HARPIDE ZANAR ETA BERRIOL.



Kultura eta Turismo Sailak  
diruz lagundutako aldzkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia

# Aurkibidea

BERTSOLARI. Editatzailea: Bertsozaleak Kultur Elkartea. Av. Madrid, 6- 20011- DONOSTIA. Tf: 943-471142  
Koordinatzailea: Joxean Agirre.  
Erredakzio kontseilua: Laxaro Azkizone, Andoni Egaña, Joxerra Garzia, Santi Jaka, Aitor Gonzalez Kintana,  
Kristina Mardaraz, Jon Sarasua, J.A. Gezalaga -Zaldubi-  
Ale bonetako diseinua : Txema Garzia. Argazkiak: Joxean Agirre.  
Inprimaketa: Gráficas Lizarra.  
D.L.:SS 482/91

12



65

Bertso bilduma

Emazteen ikuspegia

16



Egaña eta Tapia, bertsolaria  
eta itzultzailea

26



Bertsolaritzari txekoa

40



Xalbador hil zela 20 urte

50



Gure harpideen ustetan

58



Bertsolaria apostuzale



EMMAZ

# TEEN

## IKUSPEGIA

Emazteak dira bertsolariak ondoen ezagutzen dituztenak. Honako galdera hauek zuzendu dizkiegu: konta iezaguzu zure eguneroko bizimodua eta gonbaratu zure senarraren martxarekin. Ba al diozu enbidiarik? >>>>>>

Argazkiak : Karlos CORBELLA



# ELISA

# MARTINEZ

Antoni Egaiaren emaztea

## Oso lan desberdinak dira

Ofizio berrian jarri naute eta egia esango dizuet, momentu honetan bai, inbidia pixka bat ematen dit Andonik idazteko daukan erreztasun eta abilitadeak. Baina nire kasua oso desberdina da. Orri hau idazteko ere komeria handiak izan ditut. Ez da nire lana eta. Dena den, ez nioke aldatuko nik daramadan bizimodua berearengatik.

>>>>>>>>>>

**N**irea idazkari lana da, Admisnistrazioan, eta oso lan atsegina dut. Leku polita eta aproposa daukagu eta gutxi gora behera pentsatuko duzue zer motatako eginkizuna den: ordenagailua da gure tresnarik garrantzitsuena, telefonoa ere bai, eta paperak dira gure eguneroko etsaiak. Astean berrogei ordu egiten ditut, egunero ordutegi bera, eta ezin naiz kexatu, gero hainbat gauza antolatzeko denbora ematen dit eta.

Andonirena oso bestelako lana da. Eta lana bakarrik ez. Uste dut lana baino gehiago bizitzeko era bat ere badela beretzat bertsoariak. Kanpotik ikusita erreza da esatea bertsoariak oso ongi bizi direla. Beti giro alaietan, festarik festara, afariak... Plan ona dirudi baina ondo aztertuta gogorra da.

Gainera, bion lan-ordutegiak erabat kontrakoak dira. Askotan gerta-



tzen zait ni goizeko zazpit'erdietan etxetik irten, iluntzeko seiak jota itzuli eta Andoni atean topatzea. «Saio batera noa eta berandu itzuliko naiz». Eta asteburuetan berdin. Egun osoa kanpoan eta gu berriz planak berarekin kontatu gabe egin beharrean. Umeen galdera beti berdina da. Ez dago aitaxo? Kantatzen? Noiz etorriko da?. Familiako bazkarietan ere, ia beti Andoni falta da. Edo goiz aldegin beharra dauka edo kafera iristen da.

Beraz, bertsolari lana gogorra da eta gainera inguruko bizimodua ere gogortu egiten du sarritan.

Andonik bere lana aurrera eramateko oso lotura gutxi ditu. Baina badu bat, zehazki nirekiko dependenzian jartzen duena. Ordenagailuan ni askoz ere iaioagoa naiz bera baino. Eta orduan nire laguntza behar izaten du!

Konparaketa bat eginez, oso lan desberdinak dira gureak. Eta hasieran esan dudan bezela ez nioke aldatuko ez lana eta ez bizimodua. Seguru nago berak niri ere ezetz. •

# MIREN

# TERE ANTIA

Jesus Arzallusen emaztea

## Mikrofonoa ez da niretzako egiten

Jesus, bertotan ezagutu nuen Santa Ageda bezpera batean. Nahiz eta lehenago, inola ere ez nuen mundu hori ezagutzen, geroztik mundu hortan mugitzea tokatu izan zait.>>>>>>>

**H**asiera batean, hau ez zen horrela izan, elkar ezagutu eta berehala, Jesusek Iparraldera joan beharra izan zuen bizitzera. Alde batera utzita eduki zituena denboraldi baterako Hegoaldeko bertso eskolen marea. Iparraldera heldu zen arte behintzat. Iritsi bazen iritsi zen eta Urruñan sortu zen lehen bertso eskola, geroxeago Hendaian eta geroztik, mobida guzti honek suposatzen dituen ondorioetatik ez naiz ni ere salbatzen. Garai hartan, ni lanean nengibilen eta egunero chun eta hamar bat kilometro egiten nituen lanera joateko eta etxera itzultzera jada iluna gañean izaten zen. Hau astunegia egiten baitzitzai-





dan, beste lan bat aurkitu nuen erxetik gertuago. Goizez bakarrik egiten nuen lan beraz, arratsaldean haurretaz arduratzen nintzen.

Jesusek bere bertso eskolekin jarraitzen zuen eta honez gain, sarritan bertsolari elkarteko bilerak edukitzen zituen gainera, lehen Iparraldean bakarrik eta orain Hegoaldekoak ere izaten ditu. Lehen esan bezala, goizez bakarrik lan egiten nuenez bere joan etorrick ez ninduten inola ere nardatzen.

Momentu hontan, langabezian nago eta nire situazio berri hontaz baliatzen naiz lehen egin ez nituen hainbat gauza egiteko, hala nola zenbait ikastaro egiteko, besteak beste, informatika eta frantsesa ikasten ari naiz. Ez dut aspertzeko denborarik.

Egia da Jesus ez dela plazarik plaza asko ibiltzen baina bertso eskolak lotura handia suposatzen dio eta horrez gain, txapelketa garaian, etxeko giroa erabat nahasten zaigu, bere buruko minak direla eta. Orduan, dena utziko balu lasaiago biziko litzateke la esaten diot, dirudienez barruan daraman bertso-tako grinak ez dio hori egiten uzten. Bertsoa oso barruan duela uste dut eta uste dut azken batean etxeko guztiak kutsatzen gaituela neurri batean indar horrekin.

Bestalde, astero lagun kuadrila batekin biltzen da bertsotan entrenatu behar duten aitzakian afaritxo bat egiteko eta uste dut lagun giro horrek lehen aipatutako nahigabe guztiak ahantz arazten dizkiola.

Bera bertsotan gustora baldin badabil, niri ez zait inola ere axola etxetik kanpora behar izaten dituen orduak bertsotan direla eta, gainera, garbi daukat ez nukela ene burua bere lekuan ikusi nahi. Mikrofono baten aurrean jartzeak dakarren urduritasuna eta bertso eskola eta bilerek dakartzaten loturak ez dira niretzako eginak, askoz ere nahiago ditut nere ikastaroak.

Aitortu beharra daukat nire familian bertsoek oso leku garrantzitsua betetzen dutela eta gure bizitzen antolakuntzan eragin handia izaten dutela•



# MARIA

# DOLORES

Manolo Arozenaren emaztea

# ALBIZU

## Enbidia?

## Ez, eskerrik asko

Zortzi urte pasatu dira Manolok taularatzeko erabakia hartu zuenetik. Hogei urteko elkarbizitzaren ondoren biziera berri bati ekin behar izan zion eta horrek niri ere eragiten zidan.>>>>>

**G**ogorra izan zen haseran: hiru seme-alabak kanpora larunbat gaua zelako eta esan daiteke "nobiotan bezala"; baina ez, bakarrik geratzea egokitu zitzaidan. Tama-lez? Gauzak aldatu egin dira ordea; egokitu zitzaida-

netik abiatuta, siamesak ez ginela konturatu eta giro berrien bila, lagun zaharberitutakoeekin afaltzera, mendira, hondartzara, zinera...edo zergaitik ez? bertso saioetara. Edozein aitzakia da ona etxetik ateratzeko, batez ere bertan inor ez badago.

Enbidia? Ez, eskerrik asko. Astebetean boli-grafo eta paperaren aurrean jarri eta ez nituzke bi puntu idatziko; ez dit enbidiarik ematen bertso-



tara joateak: lehenengo, gogoz kontra joan behar-ko nukelako eta etxean goxo egoten delako; gero tximeletak sabelean eta hori gutxi balitz, bertso saio txarra atera daiteke edo norberak txarra egin dezake, horrek barne lasaitasunean deuen eraginarekin.

Hala ere, nere senarraren bizimoduak enbidia gutxien edozein egunetako goizeko 4etan ematen

dit Alaba falta eta ordu horretan lanera joatea ere...

Ez dut zorionsuaren papera egin nahi eta onartuko dut harrotasun puntu bat senti daitekeela mundu horretara inguratua ibiltzegtatik; baina txapelketaren gorabeherekin balantzan jarri eta ez dago orekarik. Argi dago zeinek duen pixu gehiago.

Eta senarrarena gutxi balitz, orain alaba. •

# BLANCA

# LOPEZ

Iñaki Muruaren emaztea

## Guk berari ematen diogu enbidia

Lehen galderari erantzunez, esango dut, bizitza erdia daramadala dagoeneko etxetik kanpora lanean, hogeitau urte alegia. Eta zertan.? Ba askoren ustez, urte gehiena oporretan pasatzen den lanbide batean, irakaskuntzan.>>>>>

**O**

porrengatik inbidia sortzen dugun arren, egia esan, ikasturtean zehar, errealitateak ez du bizitza lasaiarekin zerikusirik. Ikastolatik etxera arazoak eta lanak, eta etxetik lanera beste hainbeste. Etxera iritsi eta andereñoaren paperak jarraitzen du, umeci eskolako lanetan lagunduz eta egiten dutena eta ez dutena piska bat kontrolatuz. Eta sukaldeko hainbat lan egin ondoren, berriro heldu behar zaio ikastolako lanari: Klase prestaketa, ikazlanak zuzentzea, eguneratzea...

Ez pentsa hau dena oporrek justifikatzeagatik esan dudarik!

Noan orain bigarren galderari erantzutera:

Umeak txikiak izan diren bitartean, asko kostatu zait jaiegunetan bakarrik gelditzea eta batzuetan Iñakiri esaten nion hurrengo reenkarnazioan (baldin badago behintzat) nik paperak aldatzea eskatu behar nuela, ni





etxetik kanpora eta bera umeekin etxean. Baina, nik benetan nahi nuena zen eguna umeekin biok pasatzea.

Umeak hazi dira (7 eta 11 urte) eta beraiekin eta beste lagun batzuekin joan naiteke mendira egun pasa edo bizikletan ibiltzera, edo pelotalekura palaz jokatzera. Orain ere denori gustatuko litzaiguke Iñaki gurekin etortzea, baina ez dugu lehen adina faltan botatzen. Eta guk berari berriz, izugarrizko inbidia ematen diogu. Gure planak berea baino erosagoak dira, lasaiagoak.

Ez, ez nuke nere bizimodua bereagatik aldatuko!.

# KARMEL

# GARDOKI

Jon Enbeitaren emaztea

## Beti gura izan dot ama izatea

**Nire lanbidea? Etxekandrea naz, neure borondatez. Alaba zaharrena jaiotzeko zala, bera ahal zanik ondoen hezi eta zaintzeko lana izatea erabagi neban. Gero beste bat heldu zan eta oindino arrazoi gehiago erabagi horregaz jarraitzeko. Beti gura izan dot ama izatea. >>>>>**

**E**z nago damututa eta barriro ere, aukeratu beharra balego, bardin jokatuko neuke. Aspaldi honetan zabal da kalitatea eta kantitatearen teoria. Diñoe kalitatea dala haurrari emon behar jakona eta ez kantitatea; baina ni ez nago ados horregaz. Badakit, kantitate gixi zein asko izan, kalitatea dala emon behar jakona; baina lehenengo pausua, lehenengo berbak, deskubrimentu barriak, babesaren beharizana, besarkada baten eskaria... ezin dira programatu.

Momentu horretan han egon behar da. Fred Barnes-ek argi esaten dauku: «Haurrekaz daukagun tratuan ez da egia eurekaz pasatzen dogun denporaren kalitatea dala inportanteena. Momentu magikoak, intentsioak eta hortik sortzen diran hartu-emon indartsuak ezin dira planeatu. Horrexegatik haurrei denpora asko dedikatu behar jake». Inoiz etxetik kanpo lan egiten dabenen inbidia izan dot, alde batetik zure mundua gehiago zabaltzen dalako eta bestetik, egiten dozuna ordaindua eta onartua dalako. Etxeko andrearen lana ostera ez da ikusten ez ordaintzen. Baina apur bat sakontzen badozu, berea da famili barruan zereginik ga-





rrantzitsuena.

Etiket kanpoko lanean bat errealizatu egiten dala diñoenak ere ez nago guztiz konforme. Pertsona bakoitza bere barruan errealizatu behar da, dagoen lekuan dagoela.

Etxean lan egiteak ez dau esan gura bertan gordeta bizi behar dozunik. Fabrika baten dagoenak be hantxe emon behar dauz bere orduak. Ez da horregaitik bata bestea baino gitxiago ez gehiago, jakintsuago edo ezjakinago. Norberagan dago, ordu libreetan, sozialki zein kultura aldetik aberastea.

Gizonen inbidirik? Inoiz ez dot gizonen inbidirik euki, nahiz eta, zorritzarrez, oindiño ez doguzan eskubide bardinak. Emakume izateagaz harro nago. Aparteko zera daukagu. Gizonak juerga gehiago egiten dabela? Nik be ez dot izan horretarako permiso beharrik. Egia da bai, haurrak dagozanean batez be, gizonak errezagoe eskakeatzen direla eta andrak hainbat arazo konponduta itzi behar izaten dabela urten orduko.

Senar bertsolariaren inbidirik? Gurako neuke bertsolarako gaitasuna eukitea, baina ez herririk herri ibiltarren, neure atseginerako baino. Jende aurrean lotsorra naz, bizitza lasaia gustetan jat eta noan lekuan atentzinorik

ez deitzea. Egia esan, mikroaren aurrean jartea bakarrik falta jat; etxean hiru bertsolari daukadaz, senarra eta alaba biak, eta ondo dakit mundu hori zer dan.

Sasoa baten sarritan laguntzen neutsan Joneri, batez be urruneko saioetara, bidelagun egiteko eta aste-buruetan alkarregaz egoteko aukera bakarria zalako. Alabakaz be atzera aurrera franku egitea tokatu jat. Askok usteko dau juergarik juerga ibiltan dirala, baina barrutik beste era batera ikusten dira gauzak. •

# ARANTZA

# PLAZA

Xabir Amurizaren emaztea

## Ez diot gehiegi segitzen

«Zer egiten duzu zuk figura baten ondoan? Gustatuko al litzaizuke bere kualitateren bat edukitzea? Zeren inbidia diozu zure ondokoari?». Galdera arruntan aurrean zaila da erantzun orijinalak ematea.

>>>>>>

**S**aiatu nintzen adierazten bizitza pertsonalari ez diodala garrantzi publikorik ikusten, baina baietz eta baietz. Tira, ba. Nire bizitza oso arrunta da, ordutegi baten menpekoa, nire inguruan dabilen jenderik gehienena lez. Nire gizona, oster, ezelako ordutegi barik dabilela esango nuke. Ez lanerako, ez jairako. Hementxe dator, hain zuzen, bertsolarien emazteoi sarritan egiten diguten galdera. Zelan daroazue bizimodu hori? Zuek bai zortea! Nahi beste saio entzuteko aukera. Eta alde batetik bestera ibiltzekoa.

Ba, niri neuri ez zaizkit atseginegi ibilera horiek. Alde batetik bertso saioak. Hasi aurreko urduritasuna eta ardura eta ondorengo komentarioak eta kritikak. Kritika egitea gauza aberatsa da eta oso gustoko dut. Esan behar dut aspaldion oso gutxitan

joaten naizela bertsoak entzutera, karteletan ez baita oreka gehiegirik ikusten. Azken aldion izan naizen saiorik gehienetan gozatu baino gehiago sufritu dut. Bertsolaria saioa aurrera atera ezinik, gaiak nola halakoak etab. Bestalde, jendearekiko harremanei buruz, ez da dirudien beste.

Bertsolaria herri batera doanean, kantatzeetik aparte, jendeak berekin egon nahi du, bere iritziak jakin, entzun, esan...

Eta horretan nire gizona ez da bazterrean isilik egotekoa. Horri guztiari ondo eta normal deritzot. Baina une horretatik aurrera, «zer egiten dut nik figura baten ondoan?» Ba, egia esan behar badut, egoera hori jasan. «Goizaldeko ibilerek» barruan daramaten solasak eta eztabaidak ez dagozkit, inoiz ez baita ondorio ganorazkorik ateratzen. Erabiltzen den umoreak, berriz, zurrutarekin zerikusi handiegia dauka. Ikusten duzuenek, ez naiz oso emakume «umoretsua».

Niri gizonarekin ibiltzea asko gustatzen zait eta berari ere bai nirekin. Baina bikotean gabiltzanean, errespetuak izatea nahiko nuke eta hori ez da gertatzen. Goazen lekura goazela, beti aurkitzen duzu norbait kontuak esateko prest, kaparrada emateko ez denean. Kaixo eta

hirulau hitz gizalegezko eta, nahi bada ere kariñoso ondo daude, baina gizona andrearekin ikusten dutenean, distantzia bat zaindu behar luketela dirudi.

Ba, ez. Topo egite-rik kasualena bada ere, eurentzat beste gabe agertu bazina lez hartzen zaituzte, baita bertsoak eskatu ere. Jai esparruan ulertzekoa da hori, baina edonon ez. Eta nik zer egin horrelakoetan? Aurpegi ona jarri eta aurrera. Onegia ere ezin duzu jarri, bestela gehiago litartzen baitzaituzte. Gure umeak ez du aitarekin inora joan nahi izaten, beti baitago gogait eragingo dionen bat.

Ibilera horiekiko nire inpresioa ez da, beraz, sarritan joatera animatzekoa. Hala ere, aitortu behar dut -eta hau gauza handia da- nire gizona bera dena delako izan ditudan aukerak ez daudela edonoren esku. Jende mota asko eta oso interesgarria ezagutu dut, baita kariño handia hartu ere, eta horiekin, etxera datozenean edo nonahi biltzen garenean, jendearen trabarik gabe, tratatzea asko gustatzen zait. Bertsolariez gainera, musikari, pintore, eskultore, idazle, pentsalari... eta jende soil, hainbat pertsonekin tratatu dut, neure gizona dela bide. Hori bai dudala gogoko eta hori bai eskertzen diodala nire gizona bertsolari izateari. •



# Andoni eta Koldo

## Bertsolaria eta itzultzailea

Irailaren bigarren astean Mexikora bidaia egin zuten Andoni Egañak eta Koldo Tapiak, Veracruz herrian egin zen Encuentro-Festival Iberoamericano de la Décima delakoan parte hartzeko.


Topaketa horretan bertsoan etengabe jardun zuen Andoni Egañak. Ondoan, ordea, itzultzaile bat zuen, lehen ere esan osteko interpretaritzan esperientzia dezentea duen Koldo Tapia alegia. Andoni bost egun horietan bizitako esperientzia kontatzen du elkarrizketa honetan eta Koldok ondorioak atera eta gogoeta batzuk eskaintzen dizkigu, eraskin gisa.

**Testua: Joxean AGIRRE**  
**Argazkiak: Koldo TAPIA**

Atsedenaldi batean.







Andoni Egaña Indio Naborirekin.

**M**EXIKON IZAN ZARETE BERRIKI, ENCUENTRO-FESTIVAL IBEROAMERICANO DE LA DÉCIMA DELAKOAN. NOREN INIZITIBA IZAN ZEN?

ANDONI EGAÑA:

Haiek gonbidatu joan ginduztean. Printzipioz ez huen gure toki naturala. Kontuan har ezak Festival Ibereroamericano zela eta gu ez garela sentitzen ez iberoamerikar eta ez dezimista. Azken orduan gonbidatu gintuztean eta guk ere azken orduan erabaki genian, nahiz gure toki naturala ez izan, joan egin behar genuela, kanpo haremanak lantzeko batipat, orain arte oso deskuidatuta izan dugun arloa baita hori. Jendea ezagutzea eta kontaktuak egitea huen gure helburua.

**Gonbiteak zer suposatzen zian? Haiek egonaldia eta bidaia ordaintzen al ziaten?**

Bidaia guk ordaindu genian eta egonaldiak

haiek. Jaurlaritzara jo genian bidaia ordaintzeko eska-riarekin eta biota-ko baten bidaia ordainduko zutela agindu zigutean. Eta hori ondo ikusten diagu, Euskal Herritik kanpora hitzaldi bat eman edo eskuarte-egiteko kulturalen batekin doana kultur enbadari bihurtzen baita, enbaxadari txiki, noski, gure kasuan.

**Lehendik ere harremanik bazenuten dezimista zenbaitekin.**

Azken Bertsozale Egunean, urtarrilean, etorri hituen,

Alexis Kubatik, menor-kin batzuk eta Alpujaretako Candioca eta Sevilla. Horien ezagupena bagenian eta besteen aditzera ere bai, batez ere ikertzaile batzuen, bereziki Canarietako Maximiano Traperorena. Entzutea bai, baina ez genitien pertsonalki ezagutzen eta batez ere horretara joan gintuan, jendearekin harremanak egitera edo finkatzera. Ea aurrerantzean zer ematen duten harreman horiek.

**Lehen esan duk bazenekizuela ez zela topaketa hori zuen toki naturala. Zer oztopo izan zenuzten nor zineten agertzeko orduan?**

Oztopoak hasieran izan genitien. Esan diat lehen programa irakurrira ere ez ginela identifikatzen, baina, bestalde, bagenekien ahozko jardunaren zati garrantzitsu bat herrialde horietan egiten dela eta guk ere noizpait eman behar genuen ekitaldi horietara inkorporatzeko pausoa.

Bi lehen egunetan ohartu gintuan guri buruzko informazio oso gutxi dagoela. Uste

diagu euskaldunok mundu guztiak ezagutzen gaituztela, baina ez duk egia. Haiek izugarri harro zeuden iberoamerkanismoaz. Dezima joan ere Rondatik joan huen Ameriketara, Rondako idazle bat izan baitzen, Espinel izeneko bat, dezimaren aita. Espinelek asmatu zian dezima XV mendean idatziz, idatziz asko erabiltzen ditek Espainian Siglo de Oron Quevedorekin etab teatorako beziki eta barkuz joaten duk dezima Canarietara lehenik eta Ertameriketara ondoren eta han ahozko forma hartzen dik. Eta, ondorioz, dezimarekiko duten mirespena Penintsularekiko mirespenarekin nahasten ditek. Gu ere, noski, penintsularrekin nahasten gaituztek eta hasiera batean kosta egin zitzaigun euskaldun bezala gure buruak aurkezten.

#### **Zer egin zenuten arazo horiek gainditzeko?**

Nik uste diat badagoela hor abisu bat ematerik ere. Euskaldunen bat horrelako nazioarteko ekitaldiren batean parte hartzekotan joaten bada, lehenik eta behin komite txikietan lan egin behar dik eta txostenak azken egunetan irakurtzea komeni zaiok. Gu, alderantziz, deporte de exhibición gisa joan gintuan, azken gonbidatu gisa alegia eta Koldok lehen egunean hitz egin behar izan zian. Jardunaldiak astelehen goizeko 10etan iraki eta Koldo ia 10,20an bere rolloa sartzen ari huen: Euskadi continental, tantos millones, las ikastolas eta beste mila datu emanez, baina han jendea dezimak entzutera jo-

## Azken orduan gonbidatu gintuztean eta guk ere azken orduan erabaki genian, nahiz gure toki naturala ez izan, joan egin behar genuela.

an huen. Gero ohartu gintuan ordubeteko Euskal Herriaren erretratu hori interesgarriago zatekeela azken egunean, ostiralean, mahaian jende askorekin hitz egin eta gero.

**Dezima latonoamerikartasunaren edo beren identitatearen ezaugarri nagusizat hartzen dutela komentatu zenuten bidaiaren ostean.**

Alde batetik mirespen izugarria ziotek dezimari, neurriari alegia, eta bestetik beren dezimetan ehuneko 15ean Espinel hori aipatzen ditek, dezimaren aita; beste ehuneko 15ean Cucalanbé, joan den mendeko kubar dezimistarik onena eta beste ehuneko 10ean Indio Naborí, mende honetako kubar dezimistarik ospetsuena. Ikusten duk, guk inoiz egingo ez genukeena egiten ditek han, neurri bat maitatzea alegia. Guk gure jardunaldi batean ez geniake ehun aldiz aipatuko Xenpelar edo Baserri. Han bai, beste kode kultural batzuekin funtzionatzen ditek. Euskaldunok garen bezain zurrinak izanda, kosta egin zitzaiguan kode desberdin horiek onartzen.

#### **Zer leku betetzen dik han dezimak herri kulturaren baitan? Hemen bertsoaritzak hainbat arrakasta ba al dik?**

Lurralde bakoitzean diferentea dela uste diat. Kuban arrakasta handia dik eta Kolonbian ere bai, akaso. Mexikon ez dik hementgo arrakastarik, Argentinan ez eta Txilen ere ez. Alpujarretan ere ez, ez eta pentsatu ere.

#### **Ba al zegok bertsoaritzaren eta dezimismoaren artean alderdi antzekorik?**

Bai. Azken batean benetan inprobisatzaile direnekin alderdi antzeko asko zeudek. Hemengo inprobisatzaileen barne-mekanismoak oso antzekoak dituk. Hik komentatzen diok benetan inprobisatzaile den kubar bati: «Hi, ba, ni bertso saio batera joaten nauk hagi-

neko minez eta mikroaren aurrean jarri eta mina joan egiten zaidak eta berriro jeisten naizenean hasten zaidak». «A! ba, niri ere gauza bera gertatzen zaidak», esaten dik. Edo komentatzen diok: «Inprobisatzen ari naizelarik gustatzen zaidak publikoari aurpegia ikustea. Niri ez zaidak gustatzen fokopean itsuturik sentitzea. Nahiago diat

neu argi gutxirekin eta publikoa argi askorekin ikustea». Eta «A! ba, niri ere bai. Eskertu egiten diat publikoaren aurpegia ikusi egin ahal izatea», erantzungo dik

### **Komentatu duzue han dezimismoa folklorean integratuagoa dagoela eta hemen bertsolaritza autonomoagoa dela folkloretik.**

Bai. Kuba duk hor salbuespena. Haiek gure antzera zeuden horretan, baina besteetan. Txileko payadoreek, esate baterako, dena batera egiten diate: inprobisatu, gitarra jo, krabela jo, kantatu eta dantza pauso batzuk egin. Oraindik ere folkloreak zaku handitik aletu gabe balego bezala zegok han ahozko repentizazioa.

### **Repentizazioa han gauza kulto bezala ere ikusten al ditek?**

Ez. Ez zekiart oso ondo definitzen. Mahian erabiltzen diren hizketa-gaiak ez dizkitek erabiltzen repentizatze orduan. Hitz egiten ditek Allenderi buruz bazkaritan, mahain ari direnean, kafea hartzen ari direnean. Repentizatzen hasten direnean, ordea, loreak botatzen hasten dituk. Nire ustez, dezima inprobisatua haienzat oso estu gertatzen duk. Zortzi silabatik behin rimatu egin behar ditek eta gainera rima diferentetan eta oso terreno gutxi zegok hor gauzak esateko. "Juana Bixenta Olabe" baino dezentez estuagoa duk terreno hori. Eta gai pisuzko bati "Juana Bixenta Olabe"rekin erantzuten

gainean edukita, zaila duk asko argumentatzen.

### **Txapelketarik egiten al ditek?**

Bai. Kolonbian ditek horretan gure antzekotasunik handiena. Kolonbiako rey de reyes joan huen topaketara. Han komarka bakoitzean rey bat omen duk eta rey de reyes herrialde mailako txapelduna. Txapeldun hori Zuloaga Uribe duk, nahiz eta labezamorroa baino beltzagoa izan. Oso interesatua zegoan bere abizenek euskaraz duten esanahiaz. Medellín inguruko gizona duk Gure antzekotasun handia ditek txapelketak egiteko orduan. Publikoaren kopuru aldetik ere 10.000 lagun joaten omen dituk finalerara eta puntuatzeko erak ere gurean bezala dituk, epaimahai baten bidez.

Hori bai, diferentziak ere badituk dituk: momentuoro bi bakarrik egoten dituk tablatu gainean. Beste guztiak bukatu ahala jeitsi egiten dituk eta ia gairik gabe kantatzen ditek. Hiru minutu eta erdiko epea ematen zieteke. Beraz, igotzen dituk bi eta asmatzen ditek bidea edo ez ditek asmatzen. Asmatzen ez baditek ere, hiru minutu eta erdira kanpanilla jo eta jeitsi egin behar izaten ditek. Guzti hau Kolonbian. Asmatzen ez baditek elkarren arteko lehia horretan, bienzako kalte.

### **Norgehiagoka al duk txapelketa horietan bertsotako molde nagusia?**

Gu ere, noski, penintsularrekin nahasten gaituztek eta hasiera batean kosta egin zitzaigun euskaldun bezala gure buruak aurkezten.

oso zaila duk.

### **Zergatik erabiltzen ditek beti neurri hori?**

Beren ondare kulturala hori delako, seguru asko. Aluzinatu egiten zien esaten genienean, Juanito Dorronsorok 2.169 bertso-doinu diferente bildu zituela. Haiek neurri bat ditek eta hiru edo lau doinu.

Neurri horretan eta rimak hain elkarren

Segun nondik hasten diren. Heriotzari buruz hasten badituk, ba, herotzari buruz ondo kantatzea izango duk neurtzen dutena. Eta elkarri sekulakoak esaten hasten badituk, ba, horretan neurtzen dituk.

Horretan ere diferentzia handiak dituk beren artean. Kubarrek ere gairik gabe kantatzen ditek, baina con pie forzado, bukaera edo hasiera emanda. Bukatu behar duzue



Partaide guztiak elkarrekin.



Oscar Zuloaga Uribe, Kolonbiako «rey de reyes».

"Las muchachas veracruzanas" eta horrela hasten dituk bertsoan.

**Esan zenuten kartzelako gaia jartzea oso ideia ona iruditu zitzaiea.**

Bai kubarrei eta bai kolonbiarrei izugarri ideia ona iruditu zitzaiean eta erabiltzekotan geratu hituen edo aproba egitekotan behintzat.

**Musikak ere segun zein lekutan egiteko desberdinak betetzen dituela ikusi omen zenuten.**

Hori duk. Kuban eta Mexikon, esate baterako, koltxoia duk musika. Dezimaren barruan hasten duk "Esta mañana escuché, a un basquito cantar" eta kolpetik segitu beharrean musika piska bat jotzen ditek bigarren ahapaldia asmatzeko. Interludio gisa

erabiltzen ditek eta isiltasun horrek ez dik molestatzan musikaren erritmoa entzuten den neurrian.

Aldiz, payadoreek, bai Argentinakoek eta bai Txilekoek, eta Kolonbiako trovadoreek berek jotzen ditek musika, inprobisatu ahala, a toda letxe jotzen ditek gitarra eta a toda letxe inprobisatzen ditek.

**Abiadura meritutzat hartzen al duk han?**

Bai, hala duk, baina gehiago seguidilletan. Anoetan, Bertsozale Egunean Alexisek eskaini zian horren froga bat. Hiztegia edan eta gonbitoka egitea bezala duk. Hitz-joko soil izateko arriskua dik horrek.

**Aipatuko al diguk zuen guneroko martxa zernolakoa zen Topaketa horretan?**

Goizetan ponentziak izaten hituen. Arratsaldetan herrialde desberdinetako jendearen saioak edo erakustaldiak, beti publikoekin. Ponentzietara jende gutxi joaten huen, baina arratsaldekotara asko. Eta gauean festa mexikanoa egiten ziaten. Hori guztia Veracruz herrian eta azken egunean egin ziaten jaialdi handi bat estatuko hiriburuan, Xalapan.

#### **Hemengo bertso-afariak bezain luzeak al hituen arratsaldetako saio horiek?**

Ez eta pentsatu ere. Esan bai, esaten ziaten "toda la noche solemos estar improvisando", baina pare bat orduan nekatzen hituen.

#### **Izan al duzue zuen kontura turismoa egiteko astirik?**

Azken egunean bi ordu hartu genitian haurrentzat erregaloak erosteko. Bestela, bat ere ez, beti bertakoen inguruan ibili gintuan. Egun osoan katigatuta egoten gintuan.

#### **Ponentzia horien maila teorikoa nolakoa izan huen?**

Ponentziak, egia esan, nahikoa xareak hituen. Koldok azken bi astetan prestatu zuen ponentzia bi edo hiru onenen artean zegoan. Batetik, Maximiliano Trapero, Canarietako La Laguna unibertsitateko irakaslea iruditu zaiguk oso ikertzaile ona. Alexisek egin zian ponentzia bat itxurazkoa. Waldo Leivak ere bai. Gainerantzean nahi-

domatzen ziren erakusten pasatu zizkian, bera lan horretara dedikatzen zelako.

#### **Publikoa zer duk han, oso beroa?**

Hango publikoa mexikarra dela esatea duk zuzenena, zenbait eta lore handiagoa orduan eta txalo gehiago. Gu piska bat gogaituak sentitu gintuan. Indio Nabori, kubar trobadora, izugarri tipo interesgarria duk. Itsutua zegok, zehartu samarra, baina oraindik izugarri gizon sentikorra eta jantzia duk eta pentsatzen diat hura ere aspertu egingo zela hainbeste loxintxa entzuten, baina hala ere segitu egiten ditek. Guri errepikapena ez zaiguk gustatzen, baina haiei bai, nonbait.

#### **Azken jaialdi bat ere egin zenuten Topaketari bukaera emateko.**

Arratsaldero kantatzen genuen bertsolari eta dezimista guztiak bildu eta bi orduko jaialdi bat prestatu ziaten antzerki handi batean., Xalapan, Teatro del Estado izeneko antzerki polit batean.

#### **Zer inpresio egiten zian bat-bateko itzulpenak, hil kantatau ahala Koldok itzuli beharrak?**

Koldo itzultzaile rekonozitua duk, esan osteko interpretaritzan gehien jardun duenetako bat eta hala ere ikaragarri galtzen zian bertsoak. Igual sistemarekin asmatu ez genuelako. Egiten genian hru bertso kantatu eta ondoren Koldok hiruak batean itzuli. Ikasi diagu bertsoa itzultzeko modurik one-

Dezismoak lurralde bakoitzean  
diferenteak dituk. Kuban arrakasta handia dik eta  
Kolonbian ere bai, akaso. Mexikon ez dik  
hemengo arrakastarik

koa ahulak izan hituen. Pentsa ezak, nik neuk ere eman nian bat ostegunean bertsolaritzari buruz. Hogei minutu eskatu nizkian eta eman zizkidatean. Jeneralean ez ziaten maila ikaragarririk. Luisito Barrionuevo argentinarrak hogei minutu pasatu zizkian hizketan eta horietatik hamar zaldiak nola

na esaldia kantatu ala ahots bajuago batekin itzuliz joatea dela, esan ahala alegia, bestela oso zaila duk ezer txukunik egitea.

**Hik bertso itzulgarriak egitean saiatzen hintze edo hire gisara egiten huen, itzulpenari begiratu gabe?**

# Zenbait ondorio

Koldo Tapia

Lehen egunetan ahal nuen ondoena kantatzen nian, kezkatu gabe itzultzeko erraza edo zaila izango zen. Azken egunetan hartu nioan trukoa eta bertsoa pentsatzen denbora gutxi egiten nian eta itzulpena pentsatzen asko. Bertso onak gaizki itzulita baino gehiago balio zuela bertso txarrak ondo itzulita ohartu ninduan.

## Lehen Maximiliano Trapero aipatu duk. Euskal Herrira ere zerbait aportatzeko moduko iker-tzailea ikusten al duk?

Gizon honek dena ezagutzen dik, Euskal Herria salbu. Gizon hau eskura edukitzeak beste lurraldetan zer egiten ari diren bere ahoz jakin dezakegula esan nahi dik.

## Emakumeek zer paper betetzen dik dezimisten artean?

Emakumeen makulutasuna aipatuko niakenik. Han denak andrearekin edo andregaiarekin joan hituen eta emakume horiek makuluak hituen. Horrek ez dik esan nahi emakume guztiek peper pasiboa zutenik Antolakuntzaburu emakumea huen, Marcela Prados, eta dezimista batzuk ere azaldu hituen. Argentinako payadora nagusia, Martita Suin, emakumea huen eta Txileko inprobisatzailearen musika-laguntzailea ere emakumea huen, Viviana izenekoa.

## Zer edaten zenuten kantuan egiteko?

Ezer ez. Jendearen maila adkisitiboa oso eskasa huen. Kolonbianoa jarritakoarekin joan huen eta antzera beste batzuk ere. Kubanoak ere oso diru gutxirekin eta guk erositako tekila botela bat edo beste edan genian, besterik ez.

## Haiei kartzelako gaiaren ideia asko gustatu zitzaiea komentatu duzue Handik zuek ekarri al duzue ideia berririk?

Bai. Oso ideia polita ekarri diagu hemen ere aproba egiteko modukoa. Mexikon egiten omen ditek: bi gizon tablatu altu batera eskailerarekin igoarazi eta ondoren eskailera kentzen zietek, han goian sekulakoak elkarri esan eta norgehiagoka egin dezaten. Uste diat hori hemen ere aproba egiteko modukoa dela. ●



Viviana del Carmen Chávez, Txilekoa.

**1** Mexikorako joan-eto-rriak merezi izan du gauza guztien gainetik. Gure errealitatea oso txikia izateaz gainera, zailtasun handiak ditugu mundu hispano erraldoian gure izaera ulertera emateko, baina ahaleginak merezi izan du: gu Mexikora joan ginenean "Ama Espainia"ren ordezkariak ginen eta etortzerakoan, gutxienik, "Pais Vasco"ko ordezkariak. Aitortu beharra daukagu, ordea, oso etxera begira lan egiten dugula eta kanpotarrei eskeintzeko ezer gutxi daukagula prestaturik. Hizkuntza oztopo handi bat da, baina gainditu daitekeena, Euskal Herriko kulturgintzaren hainbat alorretan egin behar izan den beza-

la, itzulpenaz baliaturik.

**2** Dezimisten eta bertsolaritzaren artean hainbat eta hainbat parekotasun aurkitu badaitezke. Oro har, dezimisten mugimenduak folkloreaken tratamendua du, Kuban salbu; dantza, ohitura, usadio, abesti, errito eta antzeko giroan murgildua dago inprobisatzailearen ahalegina. Bertsolaritza, aldiz, oso bide propioa egiten ari da: euskal bertsolariak bere komunikazioa, herri kontzeptu ambiguoetik ihes, entzuleen giro, kopuru, ingurune eta antzeko elementuei geroz eta arreta gehiago eskeintzen diola ikusten ari gara: bertsolariak gero eta gehiago zuzeneko feed-backa lantzen du.

**3** Ezagutu ahal izan dugun mailan, esan daiteke dezimisten mugimendua hispanismoari oso loturik azaltzen dela eta "Ama España"ren ganako begirune handiz. Dezimisten mugimendua, halaber, hedadura eta prestigio handikoa, mugimendu bezala ikusten da eta dezima, bertso neurri bat baino zerbait gehiago dela begibistako zerbait da: mugimendu sozial konplexu baten bitarteko bateratzailea.

**4** Inprobisazio estilo eta modu asko daude: hasi andaluzengandik hasi eta Txile edo Argentina-ko Payadoreak, Kolonbiako troveroak, Kubako repentistak edo Mexikoko Valonistengaino. Guzti hauek, euskal bertsolariak ez bezela, gitarra, kuarto, arrabita edo arpaz jota-

ko musika dute kantu-lagun, baina musikaren funtzioan ere nabariak dira desberdintasunak herrialde batzuetik betera. Era berean, dezima jainko badute ere, hainbat kantu neurri erabiltzen dituzte han eta hemen: quintilla, cuarteta o cuadrada, ritmo del cinco y seis, verso corrido, dobletiada...

**5** Leku guztietan bezala, ikerkuntza da gehien faltan somatzen dena. Ahozkotasunarekiko Unibertsitateen axolarik eza behin eta berriz entzuten da herrialde guztietan, nahiz eta ikertzaile interesgarriak badela aitortu beharra dagoen. Jaialdiak alde horretatik askorik eman ez bazuen ere, zer dagoen eta dagoena nolakoa den zerbait ikusten balio izan du. Ezinbestekoa da ikerkuntza bultzatzea eta zeregin horretan Unibertsitateak bere lekua hartzea.

Gure antzekotasun handia ditek txapelketak egiteko orduan. Publikoaren kopuru aldetik ere 10.000 lagun joaten omen dituk finaletara

**6** Eta bukatzeko, Constantino Blanco Ruiz (Tio Costilla) mexikarrarena dezima batzuk:

*El que tomador ha sido  
y en el vicio ha navegado,  
si éste ya lo ha dominado  
puede contarse perdido;*

*Pocos son los que han podido  
alejarse de la caña  
si la vista no me engaña  
casi a asegurar me atrevo  
que perro que come buevo  
ni a palos deja la maña.*

*El que persevera alcanza,  
lo dice el viejo refran;  
se toman donde las dan  
con regocijo y confianza;  
no hay que perder la esperanza  
ni tampoco claudicar;  
sólo nos resta esperar,  
sufrir para merecer:  
no te apures por comer  
que hambre no te ha de faltar.*

*Como sabes que te quiero,  
abusas de mi bondad;  
de aguantar tu vanidad  
la separación prefiero;  
que lo sepa el mundo entero,  
ya tomé mis decisiones:  
pulgas de esas condiciones  
no brincan en mi petate;  
cada chango a su mecate  
y a columpiarse, cabrones.*

*En fin, me despido airoso,  
concluyendo esta tarea;  
aunque ninguno lo crea,  
lo inútil es contagioso:  
el hombre que vive ocioso  
ni de Dios tiene perdón,  
jamás cae a la razón  
ni puede justificarse:  
con pendejos, ni a bañarse,  
porque se les va el jabón. ●*

Bertsozaletasunari

# txeko


# txekea

## Ondoeza

nabari da bertsozaleen artean edo kezka, bederen. Bertsozaletasunak behera egin duela entzuten da Badirudi boom famatuak 93an edo jo zuela goia eta orain beherantza doala edo estankatu egin dela behintzat. Bertsozaletasunari txekeoa egin nahian, lau galdera zuzendu dizkiegu bertsolari eta bertsozaleei. Honatx galderak: **1.-Beheraka al doa bertsolaritza?** **2.-ETBren auziak eraginik izan al du beherakada horretan?** **3.-Bertsolari Elkarrekin asmatu al du lanean?** **4.-Eta, azkenik, nola ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna epe laburrera eta luzarera?** Honatx erantzunak.

Testua: Marilu ODRIOZOLA

# Jon Sarasua Txanpainaren efektua



## 1.

### Beherakadaz.

Hasteko bertsogintza eta bertsolaritza bereiztu behar dira. Bertsogintza bertsolarien jarduna da. Bertsolaritza, bertsolarien inguruko kultur proiektua (Elkartearen proiektua, lurraldetasuna, hezkuntza...) Nik uste dut bertsolaritzaren proiektua bide onetik doala, oinarriak jarritz, nahiz eta erakunde publikoen laguntza eskasa izan. Bertsogintza bera apalaldi batean dago. Txan-

painaren efektua gertatzen ari dela uste dut. Azken hamar urtetan basoa txanpainaz betetzen jardun dugu eta likidoaz gain aparra izugarri azkar igo da. Orain apar hori behe-raka dator. Somatzen genuen apar azkarregia zela, eta orain ona izan liteke likidoa non dagoen ikustea. Betetzearen alde nago, poliki, aparrarekin liluratu gabe, bere martxan. Aparra sortzen bada, ondo, jeitsiko da. Gainezka egiten ez badu, lehen baino likido gehiago geratuko da. Gainezka egiten badu, txanpain kopuru bat galdu egiten da. Aparraren lehen beheraldian gaude. Esperientzia berria da, momentu polita.

## 2.

### Telebistaren eraginaz

Telebistak eragin handia izan du bai likidoan eta bai aparrean. Uste dut geldialdia ondo etorri dela, zentzu batean. Txanpaina betetzean egiten den geldialdixoa bezala izan da, aparra baretu eta gero gehixeago betetzen segitzeko. Gauza distorsionatzaile asko ere bazuen telebistak, eta bera gabe bertsogintza benetakoagoa izan da. Bestalde, tratu duintasunaren izenean telebistari (eta aparrari) uko egiteko gai izatea garrantzitsua izan da. Likidoa betetzen segitzearen aldekoa naiz, eta horretarako telebista ona da. Ahalegina egin behar dugu espazio hori eskuratzeko, baina arriskuak kontrolatuz, eta ez nolanañi.

## 3.

### Elkartez.

EHBE apustu bat da. Gizarte-

Txanpainaren efektua gertatzen ari dela uste dut.

Azken hamar urtetan basoatxanpainaz betetzen jardun dugu eta likidoaz gain aparra, igo da gora. Orain behe-raka dator.

gintza ulertzeko modu baten aldeko apustua. Bertsoaren geroa berritzeko lana gure esku hartzeko apustua da, bertsoaren biziberritzeak arduratzen gaituen pertsona sarearen esku. Bide horretan gauza askotan asmatu du EHBEk, hamar urtetan. Batez ere, denborarekin, proiektu bat lantzea lortu du, lau ardatzetan: transmisioa, hedapena, bilketa-ikerketak, lurraldetasuna. Ez du asmatu, ordea, bere izera eta proiektua gizarteari adierazten. Ez du asmatu komunikatzen (paradoxa, bertsolariak tartean izanda). Ez du asmatu oinarri soziala gehiago zabal-tzen, une aproposetan. Hori da orain desafioa, bertsozaleak elkartearen proiektuan inplikatzeko.

## 4.

### Etorkizunaz.

Elkartek sendotzean eta lanean asmatzen badu, bertsolaritzaren (transmisioa, hedapena...) oinarriak berritzeko tresna bat behintzat izango dugu. Tresnak ez du lana ziurtatzen, baina bai posible egiten. Bertsogintzan, aldiz, zaila da aurrikustea haizeak nondik joko duen. Daukagun onena belaunaldi gazteen gaitasuna da, haizeari ohialak jartzeko. Belaunaldi horiekin batera, asmatuko ahal dugu, noski, haize-ohialak inprobi-satzen. •

# Joxepa Madariaga

## Etxe barruko kultura ari da nagusitzen

# 1.

Bertsolaritza beheraka doala esaten denean, bertso saioetara jende gutxiago joaten dela esan nahi dela uste dut, eta jende gutxiago joaten denez, saioak ere gutxitzen ari dira. Txapelketa aurretik eta txapelketan bertsolaritzak boom izugarria izan zuen, baina horri ezin zaio eutsi. Txapelketaren inguruko mugimenduak ezertan ez dira errealak, ez bertsolaritzan, ez kiroletan eta ez beste ezertan. Beraz, ber-

tsolaritza jeitsi egin da, baina ez bertsolaritza bakarrik, beste edozein kultur ekintzetan jendea biltzea oso zaila gertatzen da. Orokorrean aukera dexente dago, jendeak gero eta gehiago etxean bertan dituen aukerei heltzen die, hau da, antzokira joan beharrik gabe etxean ikusten da antzerkia, kontzertuak konpaktoan entzuten ditugu etxean, bertsoak irratiz entzuten ditugu etxean. Etxe barruko kultura ari da nagusitzen.

# 2.

Bertsolaritza indarrean zegoenean ETB ere laguntzaile izan zuen. Gaur egun komunikabide horretan inolako presentziarik ez du bertsolaritzak. Jendearekin heziketa lana egiteko oso lan garrantzitsua egin dezake ETBk. Baina besterik gabe, landu gabe behin eta berriz bertso saioak emititzera mugatzen bada, kontrako lana egingo du. Telebista bitarteko erabilia esan dezagun zer den bertsoa, nondik datorren, nola egiten den, nortzuk diren bertsolari eta abar. Guzti hau bete behar ez badu, hobe dugu Telebistan azaldu ere ez egitea. Betso saioak entzuleak behar ditu, bertan behar ditu, lehenengo eta behin bertsolaritza komunikazioa da eta. Sei bertsolari, 20 entzule zuzeneko eta kamara baten bitartez urrutiko milaka entzule izatea nik ez dut nahi. Beraz, "Hitzetik hortzera"ri bai, landua bada, "Hitzetik hortzera"ri ez, saioak grabatu eta bere hontan emititzea bada.

# 3.

Bertsozaleen Elkarte, elkarte

Kontzertuak konpaktoan entzuten ditugu etxean, bertsoak irratiz entzuten ditugu etxean. Etxe barruko kultura ari da nagusitzen.

serioa, langilea eta edonorengandik hurbil dagoena iruditzen zait. Ahal den guztietan eta ahal den neurrian, elkarteko arduradunak bertsoaren inguruan dabilen jendearekin harremanetan daude. Agian, gehiena bertsolariekin, baina baita gai jartzaileekin, saioen antolatzaileekin, bertso eskole-tako irakasle eta ikasleekin, entzuleekin, eta beste hainbat jendekin. Bilerak, ofizialak eta ez ofizialak, mahainguruak, topaketak eta abar antolatzen dira eta garrantzitsuak dira ondo funtzionatzeko. Horretan asmatzen ari garela uste dut, elkartean. Bestalde, aipatu behar da, bertsolaritzaren inguruan mugitzen garenoi ez zaigula bertsolaritza bakarrik interesatzen. Beraz, egokia izango litzateke beste kultur mugimenduekin harremanetan jarri, elkarrekin ikasi, elkartu eta aberasteko modua asmatuko bagenuke. Aspektu horretan hutsunea ikusten dut. Koordinazioa eta elkarlana falta direla iruditzen zait.

# 4.

Etorkizuna pare bat urtera edo, oraingo moduan ikusten dut. Ikastetxetan lantzen denari esker, gazteek bertsoak oinarritzeko teknikak ezagutzen dituzte. Bertsozalea denak, saioak jarraituko ditu, eta txapelketen inguruan mugimendu handiagoa nabarituriko da. Aurrera

begira, komunikabideen laguntzarekin jendea hezitzeko lana egiten badugu, kultur mailan bere lekua hartuz, hortxe izango du bere lekua, guztiarentzat aberasgarri, eta gehienbat euskerak eskertuko digu lana. •

# Jon Enbeita

Bere tokia hartzen ari da



# 1.

Nik ez dut uste bertsolaritza beheraka doanik. Gertatzen dena da boom-a edo igoera

Bertsolaria elkarte bat izanik bertsolaritzari gorpuz bat eman dio, entitate baten oraindik izateko behar-pauso handi bat da.

irreal bat bizi izan duela bertsolaritzak, eta orain bere tokia hartzen ari da. Beharbada hor ibiliko da, beheraka edo goraka joango da, baina azken finean hartuko du bere tokia. Nik uste dut hau gauza naturala dela. Gauza gehitzen denan jendea asetu egiten da, eta piskanaka uholdeak bere tokia hartzen du.

# 2.

ETBtik "Hitzetik hortzera" programa kentzea kaltegarria izan da, batetik, berari esker bertsoa leku askotara iristen zelako, eta bestetik, telebistak leku askotan presentzia duela. Bertso programa bat egotea komeni da. Beste gauza asko bezela, egotea ez egotea baino hobetagoa izaten da. Kontua da nolakoa izan beharko lukeen programa horrek. Esan daiteke "Hitzetik hortzera" programak ez zuela irudi erreala ematen. Programa honetan bertso onenak emititzen ziren, eta jendeak pentsa zezakeen hala izaten zela normalean. Ez ziren entzuten jaialdietan izaten diren bertso txarrak. Denetarik emititu behar zuten, eta ez bakarrik bertso onak. Bazirudien bertsolaritza ez zela bapatekoa, izan ere bapatean beti ondo eta txukun egitea ez da normala. Behar bada, jaialdi bat hartu eta osorik emititu beharko litzateke, ondo atera

diren bertsoak eta gaizki atera direnak ere bai, errealtatea ala delako. Hau horrela izanda, behar bada, bertsoak entzutera plazara atera den jendea ez da asetu, telebistan onena ikusi eta entzun duela.

# 3.

Elkartean bertan zuzenean egon direnak hobeto jakingo dute honen berri, baina nik uste dut orokorrean asmatu duela. Bertsolari elkarte bat izateak bertsolaritzari gorpuz bat eman dio, entitate bat eman dio. Izatea bera ere pauso handi bat da. Lan asko egin da elkartearen barruan, eta oraindik egiten ari da. Gauza batzuetan asmatuko zuen, eta beste batzuetan ez horrenbeste. Beharbada, bertsolari guztientzat plazak zabalitzen ez du asmatu, azken finean saioak herriak eskatu behar dituelako eta ez elkarteak, baina arlo honetan lan gehiago egin zezakeen, propaganda eginez, pittin bat panorama zabalduz... Dena den, aurrerapauso bat izan da lehen bertsolari, orain bertsozale elkarte dena.

# 4.

Bertsolari munduan etorkizuna ondo ikusten dut, inoiz baino zabalduagoa dagoelako. Beharbada jeitsiera hau ikusita jendeak pentsatuko du bertsolaritza bukatu dela, baina nik uste dut bere tokia hartzen ari dela eta finkatuz doala. Bertso munduan, gaur egun, inoiz baino gazte gehiago dago, eta etorkizuna inork ziurtatzen badu, hau gazteria da, beraz, bertsolaritzak he-

mendik 10 urtetara eta gehi-  
gora ere jarraituko du. Behar  
dena da lanean orain arte be-  
zela jarraitzea, orain dauden  
gazteak ez daitezen azkenak  
izan. Guzti hau helduek egi-  
ten dutena ahaztu gabe. Ore-  
ka bat bilatu behar da gazte  
eta helduen artean. Etorkizu-  
na ziurtatzeko adin eta maila  
guztiak zaindu behar dira, bai  
helduak, gazteak eta haurrak  
ere. •

# 1.

Esan behar da betso saioak antolatzea edozeinen esku egon dela orain arte. Kontuan eduki behar da baita ere, lehen bertso saioak antolatzea errentagarria suertatzen zenez, saio asko antolatzen ziren. Gaur egun berriz, ez da errentagarria bertso saio bat antolatzea. Honen zergaitia azaltzerakoan, lehenik eta behin aipatu behar da, lehen bertso saioetara joaten zen jende gutxia ez zela bertsozale amorratua. Batzuk bai, baina beste asko modaren eraginez joaten ziren saioetara, izan ere bertsolarietza moda bat izatera heldu zen orain dela urte batzuk. Esan behar da zaletu hauek telebistak erakarrirakoak izan direla. Gaur egun, jende hau bertso mundutik apartatzen hasi denean, bertso saioak errentagari izateari utzi diote. Saioak ez antolateraren beste arrazoi bat, antolaketak berarekin dakartzan arazoak dira. Antolaketarako toki egoki bat behar izaten da. Hau asko kostatzen da, eta honekin batera bete behar izaten diren segurtasun neurriak ere oso handiak izaten dira, baimenak... Dena den, gaineratu behar da, betiko jaialdiak, herri handietan antolatutakoak jarraitzen dutela.

# 2.

ETBn "Hitzetik hortzera" pro-

Kontuan eduki behar da baita ere, lehen bertso saioak antolatzea errentagarria suertatzen zenez, saio asko antolatzen ziren. Gaur egun berriz, ez da errentagarria.

gramaren desagertzea nabaritzen da. Lehen jende askok esaten zidan telebistan agertu nintzela bertsoan, eta gaur egun ez da horrelakorik gertatzen. Lehen esan dudana bezala, bertsolariak baditu zaletu ez egonkor batzuk, eta hauek telebistaren eraginez sortutakoak izan dira. Hauen ganabarriz da telebistaren falta. Nolanahi ere betiko bertsozale hori hor dago. Programa honen desagertetarekin batera, bertso eskoletako gaztetxoengan nolabaiteko hoztasun bat nabari da. Ikastaroen haseran ez da lehen adinako jende kopurua apuntatzen. Bestalde, programa honetan jaialdi handietako bertsoak emititzen ziren, eta aldiz, bertso afari edo bestela botatako bertsoak hor gelditzen ziren. Nik uste dut, arlo honetan oreka lortzea falta zitzaizola programari.

# 3.

Lehenik eta behin, Juan Mari Lekuonak esandako esaldi bat aipatuko nuke: «bertsolariak bere buruaren jabe egin dira eta hori ona da». Elkarteak, bertsolarien kolektiboaren kontzientzia biltzen du. Bertsolari elkarteak organizazioa ekarri zuen, bai txapelketan, bai jaialdietan... Elkarteak gehienak bertsolariak dira, baina bertsozale dexente biltzea ere lortu du. Bertso saio-

Jokin Sorozabal  
Telebistak ekarritako zaletuak galdu ditugu



ak eta txapelketak antolatzen ibiltzen den jendeari laguntza eskeintzen die. Elkartea bertsolarientzat ere oso lagungarria izan da, zer geran eta zertan gabiltzan jakiteko baliagarria izan da. Alderdi txarrak ere baditu, eta horietako bat, militantzian oinarritzen dela da. Baliabide gutxikin funtzionatzen duen elkartea da, eta hor lanean ari den jendea nekatzeko arriskua dago. Bestalde, elkarteak ez du oraindik bere erritmoa aurkitzen asmatu. Esan daiteke azken urteotan erritmo txikiegia hartu duela.

4.

Etorkizunari dagokionez, hemendik pare bat urtetara gauzak ez dira asko aldatuko. Epe motxa da bertsolaritzan aldaketa handiak nabarmenitzeko. Epe luzeago bati begira, kontuan izan behar dira gizartean errotuta dauden balore batzuk, hala nola, euskara, eta badira garrantzia eman behar zaien arlo batzuk, ahozkoitasuna eta literatura bezalako arloak. Guzti hauek gizartean indarrean mantentzen badira, bertsolaritza ondo mantenduko da. Esaten da inguru ruraletan bertsolaritzak indar gehiago duela, eta hau gertatzen da balore hauek oraindik tinko mantentzen direlako. Dena den oso zaila da zer gertatuko den esatea, edo zer gauza gerta bait liteke. •

# Estitxu Arozena Esperimentazio garai bat etorriko da



1.

Gorakadaren ondoren normala da beherakada etortzea. Bertsolaritzak izugarrizko gorakada izan zuen, beraz oraingo hau gorakada honen beherakada da. Orain ikusi behar da bertsolaritzaren normalta-

Telebista ez da bertsolaritzaren formato natural bat, eta ezta ere egokia. Gainera, garai batean, errepikapenekin jendea nazkatzea ere lortu zuten.

suna. Gorakadan aldagai askok hartu zuten parte, beraz, beherakada ere arlo askotatik etorriko da. Nik uste dut beherakada hau normala dela, lehengo ere ez bait zen normala. Ez da posible maila handi hori mantentzea, ez bertsolaritzan ez beste inon. Orain, garai bateko gehiegikeriak ordaintzen ari gara.

2.

ETBn "Hitzetik hortzera" emititzeari utzi ziotenean, askok alderdi ona ikusi genion. Garai hartan jendearentzat bertsolariak telebistan ateratzen zirenak bakarrik ziren, eta hor agertzen ez zirenak bazirudien ez zirela bertsolariak. Jendeak ez zituen bertsolariak botatako bertsoengatik ezagutzen, baizik eta telebistan agertzen zirelako. Telebista ez da bertsolaritzaren formato natural bat, eta ezta ere egokia. Gainera, garai batean, errepikapenekin jendea nazkatzea ere lortu zuten. Gaur egun, agian, bertsolaritzak ikuspegi berri bat behar du, eta agian, telebistak emango lioke ikuspegi berri hori onerako ala txarrerako izango litzatekeen.

3.

Bertsolaritza Elkartek, bertsolaritza munduan, proiektuak egiten asmatu du. Orain arte

ez da bertso finkatua egon eta ez zaio trataera berezi bat eman, eta alde horretatik, hedapena eta kontinuitatea bermatu dituela iruditzen zait, eta bertsolarien erreferentzi bezala ere lan ona egin duela uste dut. Agian hurbiltasuna falta izan zaio bertsozaleak inguratzeko garaian, eta amaitzeko esango nuke elkarte onek zerbitzu puntual eta esporadikoa eskeintzen duela, zerbitzu hau handitu daitekeelarik.

4.

**E**torkizun hurbilean, nik uste dut oraingo bidetik joango dela, bertsoaren tokia non dagoen zehaztuz. Geroago esperimentazio garai bat etorriko da. Bertso eskolak produkzio handia ematen ari dira, produkzio hori ezin da gaurko bertsoaren egiturari kokatu eta bide berriak urratuko direla. Iruditzen zait, esperimentazio garai bat etorriko dela. •

# Jesus Arzallus

1993an jo zuen goia bertsolaritzak



1.

**B**ertsolaritza beheraka doala egia da, baina moiztik ari da jasaten bertsolaritza beherakada hori? Beherakada honen aurretik gorakada handi bat izan zuen bertsolaritzak.

Bertsolaritza ez delako heltzen programa martxan zegoenean heltzen zen bertsozale guztietara. Jende asko dago asteburuetan plazaz plaza egiten den bertso saioetara joan ezin duena.

1980tik abiatuz, txapelketarik gabeko eten handia izan ondoren, Euskaltzaindiak antolatutako txapelketa ospatu zen. 1986an bertsolari berriak eta klasikoak datoz, batetik, Lizaso txapela irabaziz, eta bestetik bertso eskolaren lehenbiziko emaitzak, Egaña, Sarasua eta Eguzkitze. Hortik aurrera bertsolaritzak izugarritzko beroaldia izan zuen. Elkarteak ere 1986ko Txapelketa antolatzeko sortzen da. Telebistak ere lehenbiziko aldiz bertsolaritzarekin bat egiten du, eta 1993an bertsolaritzak goia jotzen du. Urte honetan, bakoitzak bere tokia hartzen du, bai bertsolari zaharrak eta baita berriak ere. Garai hartan telebista ere desagertu egiten da, eta nire ustez orduan hasi zen beherakada. Gaur egun bertsolaritzak ez du txapelketa garaian adina jende erakartzen. Beherakada hau dela eta, badirudi bertso eskoletako matrikulazioak ere beheraka doazela. Dena den, nik uste dut datorren urteko txapelketak konfirmatuko duela benetan non gauden.

2.

**T**elebista gaur eguneko hedabide guztien erregea dela ikusita, zaletasunak pizteko medio ezinhobeak da. "Hitzetik hortzera" martxan zegoenean 200.000 ikusentzuleen zifra aieratzen zuten audientziak, beraz, hau ez dagoela jakitea

atzerapauso haundi bat da, bertsolaritza ez delako heltzen programa martxan zegoenean heltzen zen bertsozale guztietara. Jende asko dago asteburuetan plazaz plaza egiten den bertso saioetara joan ezin duena. Beraz, jende honi egungo bertsoak jarraitzeko posibilitate bat kendu zaio. Baina hemen gertatzen dena da, denon zergekin ordaintzen dugun telebista honek ez duela dirurik gastatu nahi bertsolarietarekin. Nik uste dut programarik ez egotea ez dela Elkar-tearen kulpaa, baizik eta telebistarena, batetik, ematen zuen dirua mixeria bat zelako, eta bestetik beraiek nahi zuten aurkezlea inposatu nahi zutelako, beraien zuzendaritzapean, beraz, elkarteak burua pixka bat makurtu lezake, baina bizkar hezurra hautsi ez.

3.

Elkartea sortu arte, ez zegoen elkarterik. Elkartea sortzeak nola edo ala asmatu egin du. Txapelketak antolatzerako garaian asmatu egin du. Gaur egun txapelketa nagusia beste hainbat txapelketen ondorioa da, eta honen bitartez eskualdeak lotzen asmatu egin du. Irakaskuntzaren arloa ez dut uste gehiegi kontrolatzeko aukera izan duenik, beste bide batetik doa. Hortan ez duela asmatu esan liteke. Administrazioari bertsolaritzaren alde egiten den lana neurri batean bere gain hartu behar duela ulertzen ere ez du asmatu. Dena den, aipatu behar da, beti erne dagoen elkarre bat dela, eta bertsolariengandik gertu dagoena. Bazkide kanpaina laster hastera doa, eta hau on-

do badao, administrazioari kasu handirik egin gabe eta bazkideei esker iraun badezake, hori izango da elkarrean orain arte egindako lanik onena.

4.

Bi urte oso denbora gutxi da zer aldatu liteken jakiteko. Aldiz, hemendik 10 urtera gauzak aldatuko dira. Nahi ta nahi ez, gaurko bertsolari batzuk erretiratzeko bidean egongo dira, eta gaur ezagutzen ez ditugun batzuk plazak hartuak izango dituzte. Beraz etorkizuna bertsolari berri hauek egiten dutenaren arabera izango da. •

Xabier  
Amuriza  
Hobe dugu  
lurraldeetako  
elkarreak  
indartu



1.

Bertsolaritzak beherakada jasaten duela egia da, eta hori azaltzeko arrazoi bat baino gehiago daude. Bertso plazak desorekatu edo nahasi egin direla uste dut, azken urteotan promozio lan handia egin delako. Alde batetik hau oso lan positiboa izan da, inoiz baino gazte jende gehiago dagoelako, baina bestetik gazte jendearen promozioa eta bertso plazak nahasita dabiltzala uste dut. Hau dela eta saio askotan desoreka sortzen da, mailak nahasi egiten dira eta bertso saioa eta promozioa bera ere nahastu egiten dira. Bertso plazan entzuleak "promesa" asko ikusten ditu eta "promesa" hoiek oraindik ez dute garrantiarik. Kaos edo anarkia bat sortu dugu bertso plazetan, eta mailak nahasteak bertsozaleari ilusioa kendu egiten dio, bertso saioetan entzuleak, askotan, gozaten baino gehiago sufritzen egoten direlako. Promozioak bere tokia eta bere gunea behar du, baina plaza guztietara ezin da eskema hori zabaldu, eta nire ustez horren ordaina ordaintzen ari gara. Printzipio gisa esan daiteke mailak ezin direla nahastu, kalitatea jeitsi egiten delako. Kalitatea daukanak eman behar du, eta ez bihar edo etzi eduki dezakeenak.

2.

Telebista bezalako medio ba-



Bertsolaritza izugarri ugaldur zela, Bertsokak kantatzen dituen guztia plazara igo da. Irrati eta telebistaren eragina ere oso handia izan da ugalketa honetan.

izugarri ugaldur zela. Bertsokak kantatzen dituen guztia plazara igo da. Irrati eta telebistaren eragina ere oso handia izan da ugalketa honetan. Bertsolaritzaren beherakada ulertereko beste arrazoi bat, euskera beraren ezina da. Euskera ezinean badabil, bertsolaritza ere ezinean ibiliko da, eta hau ez da harrizkoa.

2.

Telebistak, nire iritziz, bi alderdi ditu, ona eta txarra. Adibidez, zabalkunde aldetik, etxetik gutxi ateratzen direnentzako eta bertso saioetara joan ezin dutenentzako onuragarria izan daiteke. Baina bestetik, telebistak bertso ugalmena eragiten du. Gaur egun bertsoak entzuteko garai bateko goserik ez dago. Gaur egun bertsolariak leku askotara joaten dira, erakundeak eta udaletxeak saioak antolatzen dituztelako. Beraz, izugarritzako ugalketa eman da bertsolaritzan, eta telebistak zerikusi handia izan du horretan.

3.

Entzuten da Bertsolari Elkarteak ez dabilela oso ondo. Hortik kanpora gauza gehiegirik ez dakit, azkeneko bileretara ez naizelako joan. Elkarte guztiak, berez onak dira, baina ez dakit Bertsolari Elkarteak bide onetik edo okerretik joan den. Diru aldetik ezinean da-

bil, eta nahiz eta bazkide berriak ere izan, lehenagoko batzuk baja ematen ari dira. Dena dela, ezin dut ezer asko esan azken bileretan ez naizelako egon.

4.

Bertsolaritzak oraingo martxan beheraka egingo du. Garai bateko egitazko bertsozalea baztertu egin da, eta oraingo jende berriak, ba al du bertsozaletasunik? Itxura asko egiten da, batez ere txapelketetan, baina ez al da itxura gehiegi? Hau da nire kezka. Gaur egun jendeak arreta gutxi jartzen dio bertsoari. Beste gai bat hizkuntzarena da. Gure hizkuntza ezinean badabil, bertsolaritza ere behera joango da. Penagarria izango da, baina ez dago beste gorabeherik. •

Mikel Mendizabal  
Telebistaren  
falta nabari da  
gaztetxoengan  
ere



1.

Egia da bertsolaritza azken urteetan jeitsi egin dela, baina horrek ez du esan nahi beharra doanik, baizik eta bertsolaritzaren basea aldatu egin dela. Bertsolaritzak boom ' bat izan du azken urtetan. Orain beharbada asentatu egin da, urak bere onera etorri dira, eta batez ere boom hori jeitsi

Bertsolaritza izugarri ugalduta zela. Bertsoak karitatzen dituen guztiak plazara gogo da. Inari eta telebistanen eragina ere oso handia izan da ugaltzearen honetan.

egin da. Baina honek ez du esan nahi bertsolaritza behe-raka doanik. Jeitsiera hau azaltzeko denon ahotan dabil-tza arrazoi batzuk, eta horieta-ko bat ETBn "Hitzetik hortze-ra" programaren desagerketa da. Programa honek eragin handia zuen, eta hau kendu ezkerro zaletuak gutxitu egin dira, eta hau nabarmentzen da bai ikastetxeetan, bai bertso eskoletan, bai gazetxoengan, bai helduengan... Jaialdi bat antolatzerakoan jendearen erantzuna nabaritzen da. Beste arrazoi bat, bertsolaritza modan egon dela da, eta nik uste dut moda hori aplikatu egin dela, eta hau ere nabar-mendu da. Bestalde, txapelke-tak, jaialdiak, bertso saioak eta abar, ugaritu egin dira, eta jendeak zuen bertso gosea asetu egin da, eta jendeak deskantsua hartu du.

## 2.

ETBn "Hitzetik hortzera" pro-gramaren desagerketak boom horren jeitsiera suposatu du, eta zaletasunari neurri hobea hartzea. Orain jaialdietara beharbada jende gutxiago joan-go da, baina hauek zaletuago-ak dira. Programaren desager-penarekin hutsune handi bat ere nabaritu dugu, izan ere programa honen bidez bertso-ak etxe eta toki askotara iri-sten ziren, eta orain hor hutsu-nea dago. Bestalde, progra-

maren ezak, bertso programa on baten beharrean gaudela adierazi digu, komunikabide-etan presentzia bat behar dela, eta horren beharra denok bizi dugunez, nik uste dut programa hau bideratzen saia-tu beharko genukeela.

## 3.

Bertsolari Elkarteak eraikuntza handi bat egin du, bertsolari-tzaren etxe handi bat eraiki du, eta teilatu on bat eman dio. Horretan asmatu du el-karteak. Orain eraikuntza hori ondo betetzen saiatu behar du. Txoko eta terreno asko daude betetzeko eta beharba-da, denak batera betetzea zaila izango da, eta horregaitik, lehentasun batzuk markatu beharko liratezke. Dena bate-ra hartu gabe, pausoz pauso terreneak betetzen joan behar da. Bestalde, kanpora begira ere lana egin behar da, kultu-rari lehioak zabalduz.

## 4.

Dударik ez dago bertsolaritza-ren oinarriak bastante ondo funtzionatzen dutela, bai ikas-tola, ikastetxe eta bertso esko-letan dinamika onean ari dire-lako lanean. Kantera berria nahiko ziurtatuta dago, eta honekin batera hortik sortuko den potentzial guztia. Baina potentzial guzti honen aurre-an ez dago behar bezala eran-tzuterik, ez dago plazarik, be-raz, potentzial hau hezi egin behar da. Arlo ezberdinak es-keini behar zaizkie eta arlo ezberdin horietan banatzen jakin behar dira. Honek esan nahi du, bertso eskoletatik ateratako guztiak ez daukatela bertsotan aritzerik, horregaitik

jakin behar dugu gaztedi berri horri beste arlo batzuk ere ba-daudela erakusten, esate bate-rako, gai jartzaileak, epaima-haikoak, bertso kritikoak. Ar-lo guzti hauek landu beharre-an gaude beharrezkoak dire-lako. Beraz, gaztedi berriari arlo guzti hauen berri eman behar zaio beraiek aukeratu dezaten. Garrantzitsua da gaz-teak arlo guzti hauetan impli-katzea eta erantzunkizunak beregain hartzea, esperimen-tazio batzuk eginez. Honetaz gain jakin behar da bertsolari-tza anitza dela, eta entzulegoa ere anitza dela. Bertsolaritza kaleratu egin da, unibertsitate-an ere sartuz. Nik uste dut he-mendik pare bat edo 10 bat urtetara bertso entzulea oso anitza izango dela, bertsola-riak ere anitzak izango direla, eta ikasi beharko dugu hori aurrera eramaten. Bertsolari-tzari zentzu bat eman behar-ko diogu berriro ere moda batean gera ez dedin. Oinarri sendo eta oreka bat bilatu be-harko dugu. •

# Anton Mari

## Aldekoaotalora Etorkizunik izatekotan, kalean du

# 1.

80. hamarkadan boom i karagarria izan zuen bertsolaritzak. Bazirudien euskalzaleen munduan izar berri edo konstelazio oso bat sortu zela: bertsolaritza. Bertsolaritza bera hor egon da betidanik. 60. ha-

markadan, txapelketak berriro antolatu zirenean arrakastatsuak izan ziren. 60. hamarkadaren amaieran, bertsozaleak bertsoaren zirira ohitu ziren eta bat bateko bertsora. 80. hamarkadatik aurrera txapelketekin eta gazte berrieekin boom ikaragarri hori eman zen. Orain nabari den beherakada nik ez dut uste beherakada denik, baizik eta bere tokira bueltatzea. Beharbada aparretan ibili gara eta urak bere tokira bueltatu dira.

## 2.

Telebistak bere abantailak eta desabantailak ditu. "Hitzetik hortzera" programak hainbat eta hainbat euskaldun bertsozaletzeko balio izan du. Baina programa honek bertso onenak entzutera ohitu gaitu, izan ere programa honetan oso bertso onak entzun dira. Hau ez da ona izan, jendea bertso onak entzutera ohitzen delako, eta gero bertso plaza joandakoan, jendea ez da gustora gelditzen, izan ere, bertso plazan ez dira bertso guztiak puntakoak izaten, eta bertso saio bat bertso guzti horiek osatzen dute, bai onak eta baita hain onak ez direnak.

## 3.

Nik uste dut Elkartek bertso bilduma egin nahian asmatu edo asmatu nahian ibili dela, hortik zehar sakabanaturik dagoen bertso mundu hori bildu nahian. Bestalde, bertsolariak bideratzen ere asmatu du, nolabait ere, horrenbeste bertsolari dagoen garaian guztiak dute bertso saioak egiteko aukera elkarteari

Orain nabari den beherakada nik ez dut uste beherakada denik, baizik eta bere tokira bueltatzea. Beharbada aparretan ibili gara eta urak bere tokira bueltatu dira.

esker. Elkarteari ez diot akats handirik ikusten, baina bertsolaritza inprobisazioa den heinean, elkarte honek ez du asmatu berezko inprobisazio hori mantentzen, hemen ere elkarte guztiak dituzten mugetara mugatu behar izan da. Dena den, lehen aipatu bezala ez diot akats nabarmenik ikusten.

## 4.

Badirudi bertsolaritza bere tokira doala, jende kopuru aldeetik behintzat. Baina bertsolaritzak inon etokizuna izatekotan kalean du. Honekin ez dut inondik inora baserri giroko bertsolaritza baztertzen, izan ere honi esker bizi da gaur bertsolaritza. Gaurko gaztedia kale giroan hezten zaigu, ikastetxez, unibertsitatez edo langaiz. Gaurko bertsolari gazteak kalean erabiltzen den erderazko argota eskuratzen eta euskaratzen ari dira. Kaleko bizimodu normala bertsoz txertatzen ari dira. Nik etorkizuna hemendik ikusten diot bertsolaritzari, baina baserri giroko bertsolaritza baztertu gabe. •

# Jon Lopategi Bertsolariaren arrakasta mezuaren baitan dago



## 1.

Egia da bertsolaritza jeisten ari dela. Nik uste dut, bertsolaria bere irudia galdu egin duela, galdu baino gehiago bere irudia aldatu egin dela. Lehen irudi misteriotsuagoa zuen. Bertsolariek, lehen, me-

zu ezberdinak zabaltzen zituzten bertsotan, eta jendeak bertsolari horrek esaten zuenaren beharra zuen. Herriari mezu- orokor bat zabaltzen zion bertsolaria. Gaur egun ez dago honen beharrik. Bertsolaritzak teknika aldetik asko irabazi du, baina jadanik ez du beharrezko mezu hori botatzen, eta horregaitik, lehen jendeak bertsoak entzuteko zuen beharra desagertuz, jendea ez da bertso saioretara joaten.

## 2.

Nik uste dut programa horrek, bere akats eta guzti, mesede handia egin ziola bertsolaritzari zaletasuna zabalduz. Orain horren falta nabari da, eta honen desagerketa dela eta jendeak zaletasuna galdu egin du eta ez da bertso saiokak ikustera joaten. Hau da bertsolaritzaren beheakadaren beste arrazoi bat. Programa horrek gaurkotasuna ematen zuen etxeetara, eta gaur egun hori falta da.

## 3.

Elkarteari dagokionez, nik izan ditut neure desadostasunak, baina orohar bide zuzena hartu zuela iruditzen zait. Nik uste dut telebistarekin izandako harremanean ez zuela asmatu. Telebistak eta honelako erakunde instituzionalak, gaur egungo gizartean presentzia handia dute, eta nik uste dut elkarte batek ahaleginak egin behar dituela erakundeekin nolabaiteko harremana izateko.

## 4.

Bertsolaritzaren etorkizuna

Nik uste dut programak horrek, bere akats eta guzti, mesede handia egin ziola bertsolaritzari zaletasuna zabalduz. Orain horren falta nabari da.

euskeraren egoerak baldintzatu izango da. Euskerak aurrera eginen badu bertsolaritza mantenduko da. Bertso eskolekin ere etorkizuna ziurtatuta dago. Bertsolaritza mantentzeko beste gako bat mezuan dago. Bertsolaritzak ematen duen mezuaren arabera herriaren arrakasta gehiago edo gutxiago izango du. Lehen bertsolariek euskeraren mezua zabaltzen zuten. Beraiek ziren euskeraren alde publikoki jarduten zutenak, eta honen herriarengan izugarritzko arrakasta zuen. Gaur egun hau arrunta da. Hemendik aurrera horrelako mezu bat beharko du existitzeko arrazoia izateko. •

# Leoni Aire

« Omenaldi guztiek  
egun hartako  
oroitzapena berritzen  
didate »

Azaroaren 7an bete dira 20 urte Fernando Aire «Xalbador» bertsolaria bere jaioterrian, Urepelen, hil zela. Heriotza horrek, beste ingurumariarik gabe ere, nahikoa tristura zabal zezakeen euskaldunen bihotzetan, baina «Xalbador» bere omenaldian bertan hil zen, oholtza gainean kasik, eta zertzelada horrek handitu baizik ez zuen egin ezbeharraren oihartzuna, ia-ia gertakari mitiko bihurtuz. Leoni Airek, Xalbadarren emazteak, bertsolariren azken ordu horiek berritzen ditu elkarrizketa honetan.

Testua eta argazkiak:  
Joxean AGIRRE







19 urterekin ezkondu zen Leoni.

**B**AKOITZAK BERE GISAKO HERIOTZA AUKERATZEN OMEN DU. Burrukalariak heroe bezala biltzen dira, koldarrak traidore gisa. Bertsolari batzuk, Udarregi eta Iturzaeta esate baterako, kantuan hil ziren eta Xalbador bezalako bertsolari karismatiko eta maitegarri bati ere bere izaeraren araberako heriotza bat tokatzen zitzaion. Heriotza hori dagoeneko bertsolaritzaren historiaren frisora pasatu da, zeren eta herri baten historia eszena gutxi batzuetara laburbiltzea zilegi den bezalaxe, bertsolaritzarena jendearen memorian errotu diren bertso bandi eta eszena gogoangarri batzuetara bil baitaiteke.

Gure memorian iltzaturik geratu den eszena hori Urepelgo plazatik burbil gertatzen da, udaleku-eskola batean. Gizon bat dago ondoezik ohe gainean eta inguruan seme-alabak eta emaztea soma daitezke adiskide batzuekin nabasian, trantze horietako aztoramenduak agintzen duen gisan, zer egin ez

dakitela. Gaixoari pultsosa hartzen ari zaion medikuari galdera ikurra egiten dio begiradarekin emazteak eta bonek, besoa bertan behera utzita etsipen aiberua dibujatzen dio airean bi eskuekin akabo dela esanez bezala, ez dagoela zer eginik alegia, eta emazteari gizonarengana laguntzen dio. Emazteak besarkatu egiten du, bere beroarekin heriotzaren mamua uxatu nabiz bezala, baina alferrik da. Gaixoak beso biak zabaldu eta hiru bats kolpe ematen ditu, biziarekiko zorra bete duela adieraziz. Lehen negar-sotinak entzuten diren bitartean, lekuko batek, azken bi hilabetetan gorderik duten sekretua argitaratzen du eta hil berriei hitzegüeko erabiltzen dugun abots ozenarekin «Fernando Aire 'Xalbador', Euskaltzain urgazle izendatzen zaitugu», esaten dio. Ondoko isiltasunean handik metro gutxitara kantuan ari diren jaialdiko bertsoak entzuten dira, ez baitira oraindik enteratu omendua bilik dagoela. Berriak, noski, ezustean harrapatu ditu guztiak, Xalbador bera izan ezik beharbada. Hala iruditzen zaio Leoniri.

#### Zenbateraino zekien Xalbador berak heriotza bazetorkiola?

LEONI AIRE. Xalbadorrek berak senditzen zuen egun hartan hilko zela. Beste inork ez zuen pentsatzen. Ez eta nik ere. Ondoko egunetan ohartu nintzen horretaz, ez lehenago. Badakizu gauza horiek nola izaten diren.

Saso horretan bi semeak elkartu eta GA-EC delako bat sortzea erabaki zuten, horretarako zeuden diru-laguntzez profitatzeko. Bakoitzak bere parte jarri zuen eta baldin gaizki ateratzen bazen, berriro bakoitzak bere bidetik segituko zutela erabaki zuten. Danielek nekazaritzan eta Mixelek artzain. Nire senarrak, Fernandok, etxe batean hiru nagusi gehiegi zirela ikusten zuen eta gu biok beste etxe batera aldegin behar genuela uste zuen. Hala hitzeginda geunden behintzat. Omenaldia baino 15 bat egun lehenago, auzoko etxe baten aurretik pasatzean, komentatu nion

etxe huraxe polita izango zela gu biok elkarrekin erretiratzeko. «Ah gaixoa -erantzun zidan- , ez duzu guretzat etxe beharrik». Egun horri beldurra zion, guk pentsatzen genuen baino askoz ere gehiago, baina 56 urte bakarrik zituen eta niri ez zitzaidan burutik pasatu ere egin horrelako zerbait gerta zitekeenik.

Egun batzuk lehenago, gisako egunetarako egin ohi den bezala, zerbait berria erosiko niola esaten nion baioitzean, zapata berri batzuk edo jertsei bat, ez zuela merezi, ez ziola balioko erantzuten zuen. Baina berak hori sentitzen zuela ondoren ohartu ginen.

### **Noiz jakin zenuen zuk Xalbador oso gaizki zegoela?**

Ni jendearen artean nintzen, noski, omenaldi egun horretan Mikel Atxaga eta Aranalderen artean eserita eta Xalbador atera zelarik, zegoen lekutik altxa eta aldegin zuelarik, ez genuen ezer txarrik pentsatu. Itzultzen ez zela ikustean hasi ginen kezkatzen eta orduan etorri ziren nire bila, Xalbador eri zela esanez. Han ondoan dauden udaleku edo eskola batzuetako gela batean aurkitu genuen litera batean etzanik. Atera zenean bertan erori zela kontatu ziguten. Ni baino lehen joanak ziren bi alabak eta Mixel eta «zoazte Danielen bila», esaten zuen berak.

Artean hitz egiten zuen. «Guztiok hemen gira», esan nion nik eta «Gaixoak» errepikatzen zuen hark. Ea minik zuen, ea sufritzen zuen galdegiten nion nik eta bere eskua petxuan jarri eta min zuela erantzuten zidan. Inguruan familiakoak eta adiskideak ikusten zituen animoak eman nahiz eta «Zuek zer nahi badakizue enetzako errepikatzen zuen, esanez bezala etsiturik zegoela. Horrela egon ginen minutu batzuk, medikuak etengabe pultsoa hartzen zion bitartean. Halako batean begiekin galdera keinua egin nion

Nire senarrak,  
Fernandok, etxe  
batean hiru nagusi  
gehiegi zirela ikusten  
zuen eta gu biok  
beste etxe batera  
aldegin behar  
genuela pentsatzen  
zuen.

medidikuari, ea nola ikusten zuen jakin nahian, eta honek bi eskuekin bukatzera zihoala adierazi zidan. Bizkarretik heldu eta gaixoarengana lagundu zidan. Oso gogorra da esateko, bana lepotik heldu eta besarkatu nuen eta bere kontra nengoela hil zen: bi besoak zabaldu eta hiru hats kolpe eman zituen.

### **Badago oso gutxitan aipatzen den zertzelada bat garrantzizkoa dena Egun horretan Xalbadorri euskaltzain urgazle zela jakinerazteko asmoa omen zuten.**

Hori zen bi hilabete lehenagotik gorderik genuen sekretua. Jose Mari Aranaldek eman zidan niri Euskaltzaindiaren erabakiaren berri bi hilabete lehenago, baina Xalbadorri esan gabe gordetzea erabaki genuen, nahiz eta sorpresa bat gorderik genuela adierazi genion. Ez genuen, azken orduan baizik, berri hori emarik izan. Labeguerie izan zen azken trantze horretan, azken hatsa eman baino istant bat lehenago, «Fernando Aire "Xalbador" euskaltzain urgazle izendatzen zaitugu» esan ziona, baina inork ez daki une horietan entzuteko gai izango zen edo ez.

### **Handik urte batzuetara Urepeldik aldegin eta Garazin bizitzen jartzeko erabakia hartu zenuen. gogorra al da horrelako erabaki bat hartzea?**

Nik 30 urte egin nituen Xalbador baserrian eta orain ere sarri joaten naiz, baina aldegitteko erabakia hartua genuen Fernando eta biok eta erabaki hori aurrea eramatea erabaki nuen. Senarra hil eta gero 7 urtez segitu nuen etxe horretan, baina alde egin behar nuela iruditzen zitzaidan eta Garazira etorri nintzen. Gisa horretako



Lau seme-alaba izan zituzten.



erabakiak maitasunagatik hartzen dira. Oso gogorra egin zitzaidan, baina pozik nago. Bi ahizpa ditut hemen. Bata ez da gauza kalean ibiltzeko, baina bestearekin paseo luzeak ematen ditut. Klub bat ere badut adiskideekin eta gainera seme-alabekin harreman estuak mantentzen ditut. Marie Helenek, esate baterako, alaba gazteenak alegia, gauero egiten dit dei eta besteekin ere sarri hitz egite dut telefonoz. Lehen sei urteak beste etxe batean egin nituen, baina uda iristen zelarik hilabetez alde egin behar izaten nuen. Gero etxe hau aurkitu nuen, hemen Jai Alai kalean, eta 73 urte badituz ere, oso ondo konpontzen naiz.

#### **Noiz eta nola ezagutu zenuen zuk Xalbador?**

Ni neu ere urepeldarra naiz. Xendariñea etxean jaio nintzen, herritik ordubeteko bidea dagoen baserri batean. Bi baserriak oso aparte daude, baina eskola berean ibili ginen eta Fernandok nik baino hiru urte gehiago baditu ere, hor ezagutu genuen elkar neska-mutikotan.

#### **Noiz utzi zenuen eskola eta hasi zinen lanean?**

Etxean zazpi anai-arreba ginen, bost neska eta bi mutil. Gazteena hil egin zen gero. Denok Urepelera joaten ginen eskolara eta bertako ostatuan bazkaltzen genuen. Ostatu horretan hasi nintzen lanean 14 urterekin. Garai horretan certificat d'études delakoa ematen ziguten 12 urterekin eta ez genuen asko gehiagorik ikasten. 18 urte arte edo ezkondu nintzen arte ostatu horretan egin nuen lan, udan bereziki eta larunbat-igandetan.

#### **Noiz hasi zinen Fernandorekin ibiltzen?**

Herrian denok

ezagutzen genuen elkar eta, esan dudan bezala, eskolan ezagutu nuen nik Fernando, baina 16 urte nituenean hasi nintzen berarekin zitak egiten, orduan hasi nintzen hobe-kixeago ezagutzen. Eskolan ez zen bat ere zalea. Ordurako etxean lanean hasia zen, baina nik lan egiten nuen ostatu horretan biltzen ziren mutilak igandetan eta kantuan aritzen ziren. Kontuan izan Fernandok orduan 19 urte zituela eta bertotan hasia zegoela. Politenak niri idatzi eta ematen zizkidanak izango ziren.

#### **Bertso idatziak ematen al zizkizun. Non uzten zizkizun bertso horiek?**

Sekretuan uzten zizkidan lanean ari nintzeanean gehienetan eta paper horiek hasiera batean gorde banituen ere, tamalez galdu egin ditut.

#### **Garai horretan ba al zenuten elkarrekin lasai egoteko txokorik?**

Bai, noski. bagenituen elkarrekien bakarrik egoteko lekuak, baina zuk ez dituzu ezagutzen. Bai, bai, gordeka ibiltzen ginen garai hartakoak ere.

#### **Zer adinekin ezkondu zinen?**

1943an ezkondu ginen. Nik 19 urte bakarrik nituen eta bera ere soldaduska egin gabe zegoen artean. Bigarren Munduko Gerra etorri zen segituan eta libratu egin zen. Urtean bi gazte talde eramaten zituzten eta libre utzi zuten. Ordurako bi haur bagenituen eta gainera etxearen kargu bera egiten zelako edo hilabete gerra egin eta libre utzi zuten. Fernando hirugarrena zen Xalbadorrenian, baina etxera ezkontzea tokatu zitzaion.

#### **Zenbat haur izan zenituzten?**

Lau haur izan genituen: Henriette, Mixel, Daniel eta Marie Helene. Lehenak Banque National de Paris delakoan egite du lan, bigarreak artzain, hirugarrena etxean nekazari-

«Zoazte Danielen bila», esaten zuen berak. Artean hitz egiten zuen. «Guztiok hemen gira», esan nion nik eta «Gaixoak» errepikatzen zuen hark.



Hogeita hamahiru urte egin zituzten elkarrekin.

tzan eta laugarrena andereño da Biarritzeko ikastolan.

### **Nola edo norengandik ikasi zuen Fernandok bertsoan?**

Ez dut uste maisurik izan zuenik. Nik ez nuen bat ere afizorik. Zaletasuna gero piztu zitzaidan, baina gazteen artean, mutilen artean bereziki, kantuan eta bertsoan egiteko zaletasun handia zegoen eta ostatuan biltzen zirelarik horretan pasatzen zuten denbora. Fernandok berak kontatu ohi zuen nola oso gaztea zela ere ostatu horretan bertsolariak entzun ohi zituen eta behin batean, 16 urte zituela edo, bertsolari horietako bati erantzun zion. Hala ere, askoz beranduago, 19 urterekin edo hasi zen jendaurrean kantuan. Lehen txapelketa 48an egin zen Iparraldean, ezkondu eta handik bost bat urtera. Sarako txapelketa horretan Fernandok irabazi zuen txapela. Txapel mexikano bat zen.

### **Mattin eta biak bikote mitiko horietako bat osatu dute bertsozaren historian. Ibiltzen al zinen haiekin batean?**

Inoiz ez edo oso gutxitan. Etxean lanak egin behar ziren. Gainera ez zegoen horretarako ohiturarik. gu ez ginen senarrarekin joaten oraingo asko bezala. Baina ez da hori bakarrik. Xalbadorrenia ez da baserri handia, baina lan asko izaten zen. Artzantzatik eta beserritik bizi ginen eta igandero kasik senarra kanpoan izaten nuen. Mixel eta Daniel kozkortu eta lanerako gauza izan ziren arte nik ez nuen inora joateko aukerarik izan.

Jean Monlong izeneko adiskide bat zuten Mattinek eta biak txofer bezala erabiltzen zutena. Bertsozale amorratua zen eta autoa zuenez, hark eramaten zituen eta ekarri ere, baina beti berandu itzultzen ziren. Nik ez dut esango bertsozaritzak gauza onik eman ez idanik. Askotan Xalbador kontent etorri ohi zen eta hori ere gauza ederra da, baina ordu asko egiten zituen etxetik kanpo eta nik ardura handiak hartu behar izan nituen.

### **Bertsozaleontzat bertsolari berezia zen, be-**



Leonik Xalbadorren bertso asko gorde zituen idatzirik.

**tsoa asko lantzen duten horietakoa. Etxean somatzen al zenuen bere baitan lanean ari zela?**

Pentsaketa asko egiten zuena zen. Askotan somatzen nuen buruari eragiten. Sukaldean bazuen bere tokia eta serio egon ohi zen han batzuetan. Orduan utzi egin behar zitzaion isilik.

**Bertsorik idazten al zuen?**

Oso gutxi, baina idazten zituen. Oso gaztea zela idatzi zituen Baigorri jarritako bertsoak, "Odolaren mintzoan" agertzen direnak eta geroztik tarteka idatzi ohi zituen, baina ez zuen gordetzeko ohitura handirik eta nik kopia bat atera eta gorde egiten nizkion isilka. Bere bertsoak asko gustatu izan zaizkit beti eta gorde egiten nituen. Liburua idazten hasi zelarik, nere koadernoak atera eta erakutsi nizkion. Poz ederra ema niola ustedut. Ez zuen pentsatu ere egiten bertso ho-

riek inork izan zitzakeenik.

**Askok Xalbador bertsolari bakarti eta lirikoztat dadukate. Ez dakite beharbada zenbat parranda egiten zituen.**

Oso lagunartekoa zen eta parrandazalea ere bai. Mattin eta Ezpondarekin ibili ohi zen eta edonork pentsa dezakeen moduan ibiltzen ziren. Baina ez zen osasun sendokoa. Parranda horietan asko edaten zuten eta gero sendatzeko, bere onera itzultzeko, egunak behar izaten zituen. Parranda asko egindako bertsolaria zen Fernando ere.

**Senarra kanpoan zelarik zu egiten zinela etxe-ko arduren jabe esan duzu lehen, arik eta Mixel eta Daniel kozkortu ziren arte. Zertan ari dira gaur egun?. Zer egiten dute bi alabek?**

Gu artzantza eta nekazaritza bizi izan gara, nahiz eta Fernandori artzantza beharba-

da gehiago gustatzen zitzaion. Mixeli, berriz, ardiak gustatu izan zaizkio beti. Hala ere, nekazari txikiak elkartzeko diru-laguntzak etorri zirelarik, GAEC horietako bat sortzea erabaki zuten bi anaiek. Tratu bat egin zuten elkarrekin eta baldin gaizki ateratzen bazen, Mixelek bere ardiekin alde egingo zuela erabaki zuten. Orain Daniel bizi da Xalbadorrenian eta Mixel Pokomotzenian, emaztearen baserrian.

Mixelek hiru seme-alaba ditu: Miren (20 urtekoa), Amaia (18 urtekoa) eta Paskal (14 urtekoa). Danielen ere hiru: bi seme eta alaba bat, Donapalaun andereño bezala lan egiten duena. Henriettek hiru seme ditu, zaharrena 30 urtekoa eta Marie Helenek bi seme, Eneko 21 urtekoa eta Ariz 14koa.

Kantuan ibiltzen dire Aire Ahizpak Mixelenak dira. Aitari askotan esaten diot nik bertsoa utzi egin behar lukeela. Ez da posible urtean zehar bat ere kantatu ez eta gero txapelketara joatea.

#### **Zu zeu zer moduz bizi zara hemen Garaziko etxebizitza honetan?**

Oso gustora bizi naiz. Egia da senarrarekin asko gogoratzen naizela. Ez dudala minutu bat ere pasatzen esango nuke berarekin gogoratu gabe. Ez da, noski, hil berritan bezala. Min hura baretu egiten da, baina ez da sekula ahazten. Kontuan izan 33 urte egin genituela elkarrekin. Hil berri hartan urteak pasatu nituen seme-alaben aurrean malkorik bota gabe eta hori oso gogorra izaten da. Orain omenaldiren baterako gonbita egiten didanean, arazoak izaten ditut. Xanpuni Saran egin zioten omenaldira joan nintzen, esate baterako, eta negarrez hsa behar izan nuen erabat unki-turik, Xalbadorren omenaldian gertatu zena ekartzen baitzidan gogora.

**Begiratu batera askoz ere gazteagoa ematen baduzu ere, 72 urte dituzula esan duzu lehen. Zer moduz zabitza osasunez?**

Ondo nabil, baina adin nire gorabeherak izan ditut. Iaz, esate baterako, telebista batek bestera eramaten hasi eta bi bertebrak mugitu zitzaizkidan. Hilabete oso bat egin behar izan nuen mugitu gabe ohean. Ahizpa etortzen zitzaidan egunero laguntzera.

#### **Zer martxa daramazu bestela hemen, egunero bizi moduan?**

Lehen esan dizudan bezala, ahizparekin pa-seo luze bat ematen dut arratsaldero. Horretaz gainera klub bat ere badugu hemen eta hor ere konpromezuak ditugu. Ostiralero mus txapelketak antolatzen dituzte eta musean ere aritzen naiz. Ni hemen oso pozik bizi naiz.

#### **Nork jarri zizun Leoni izena?**

Bagenuen etxean izeba bat nire ama besoetakoa izan nahi zuena eta hark eskaturik jarri omen zidaten. Abizena, Etxebarren, oso ohi-koz da, baina izena ez. Zeruan ere San Leon bat ba omen da, baina santa Leonirik ez. Beharbada ni neu izango naiz lehen santa. Hemen lurrean behinik behin oso bakanak izan behar dugu.

*Leoni Aire edo Leoni Etxebarren Garaziko Jai Alai kaleko 16garrenean bizi da, bigarren solairuan. Egongelan bereziki Xalbadorren presentzia nabarmena da. Mabaitxoan gainera nabiz bor-metatik «Urepeleko artzainaren» begirada soma dezake bisitariak. Leonik berak beharbada ez du argazki horien beharrik Xalbadorrekin gogoratzeko. Azaroaren 7a, hala ere, egun berezia izango da berarentzat eta etxeokentzat behin eta berriro ikusiko baitute Xalbador euskal bertso-laririk maitatuene-tako bat izaten segitzen duela. ●*

Jose Mari Aranaldek eman zidan niri Euskaltzaindiaren erabakiaren berri bi hilabete lehenago, baina Xalbadorri esan gabe gordetzea erabaki genuen.



# Harapidedunen iritziak

## Aldizkaria, ETB eta bertsolaritzaren inguruan jasotakoak

Mikel Laboaren abesti batek jasotzen duenez, Bertold Brecht poetak honako pentsamenduak zituen historiako liburu baten aurrean: «Alejandro gazteak India irabazi zuen. Berak bakarrik ote?, Felipe Espainiakoak negar egin zuen Armada urperatu zenean. Ez ote zuen beste inork negarrik egin? Zenbat historia hainbat galdera...». Poetak historiako liburuei leporatzen dien hutsegite bera ez genuke Aldizkarian egin nahi, argi daukagu eta bertsolarien hazañarik handienak ezinezko liratekeela bertsozaleen animorik gabe. Gure harpidedunengana jo dugu aldizkariaren edo bertsolaritzaren inguruan dituzten kezka eta iritziak ager ditzaten.

**Testua: Antxoka AGIRRE Argazkiak : Karlos CORBELLA**

**H**ARPIDEDUNEREN KON-  
TAKTUAN IARTZERO  
AURTENGO MARIATZE-  
KO HARPIDETZA ZE-  
RRENDA ERABILI DU-  
GU ETA TELEFONOZ  
EGIN DITUGU ELKA-  
RRIZKETAK. Mila eta  
bostehunetik gora izen zituen  
zerrenda eskuarteak, guztie-  
kin hitzegitea ezinezkoa zi-  
tzaigunez, nori deitu ezartze-  
ko irizpide objetibo bat hartu  
behar eta elkarrizketak hogeitamar harpidedunetik behin  
egitea erabaki genuen. Hone-  
la zerrendan hogeitamarga-  
ren lekuan zegoen harpide-  
dunarekin aritu gara lehenen-  
goz, hirurogeigarrenarekin  
ondoren, larogeitamargarre-  
narekin hurrena... berrogei  
harpidedunek prestatuak ge-  
nituen dozena galderari eran-  
tzutea lortu dugun arte. Gal-  
detegi zorrotzago bat eta el-

karrizketatuen kopuru handiago batez lan sakonagoa gauza genezakeela agerikoa bada ere, esan dezagun gure asmoa ez zela entsegu soziologikoa egitearena, harpidedunei hizpidea ematearena baizik. Beraz azalduko zaizkizuen datu apurrei baino balio handiagoa ematen diegu bertan jasotako testigantzei.

## ZERRENDAKO BITXIKEMIAK

**E**l karrizketetan jasotakoei ekin aurretik zerrendari begirada batzuk botatzetik bildu ahal izan ditudan bitxikeria batzuk azalduko ditut sarrera moduan, hau idazten duenari bezala interesgarriak suertatuko zaizkizuelakoan.


Aipatuko dudan lehenengo puntua harpidedunen harrialdekako banaketarena da. Nolabait "Bertsolari"ren harpidedunen herrialdekako banaketa hori bertsozaletasunarenaren islada dela esan daiteke. Harpidedunen erdia baino dezente gehiago Gipuzkoakoak dira. Harpidedun kopuruari dagokionean Bizkaia dator ondoren, hemen ere ehundaka batzuk direlarik, eta Araba eta Nafarroan hirurogeina pasa harpidedun ditugu. Iparraldean Lapurdi da harpidedun gehien dituen he-

rialdea eta Zuberoan berriz harpidedun bakarra dago, Niko Etxart kantaria hain zuzen.

Aldizkariaren harpidegoa ordea ez da Euskal Herrira mugatzen. Honela Txintxu Ruizek Errioxako Abalos herrian jasotzen du aldizkaria eta Dioni Larrinagak Zaragozan. Euskal Herritik kanpo baita ere, euskal preso politikoek aspaldian beren herrietatik urrunegi irakurriko dituzte orrialde hauek, zehazki, Xabier Belokik Alikanteko espetxe probintzian eta Luis

tar eta baserrikoen arteko proportzioarena genuen. Baserrietara iritsi ezina kezgarria litzateke guretzat, baina ez da hori zerrendak erakusten diguna: Ondazarte, Barin, Engaragartza, Odriozolatxo, Attola Berri... harpidedunen helbideen artean 156 baserri izen kontatu ditugu, mordoska bat bada beraz. Beste alderdi bati helduaz, eta lehen-txeago Niko Etxart aipatu dudanez, edo Niko aipatu dudan bezala, harpidedun zerrendan topatu ahal izan ditudan izen ospetsu gehiago ere aipa nitzake ondoren. Izan ere, eta geure harri-durarako, "Bertsolari"k bere harpidedunen artean pertsonaia ezagun mordoska bat du: Jose Ramon Soroiz aktorea, Xabier Mendi-guren idazlea, Iñaki Perurena harrijasotzailea, Felix Inurra-tegi mendigoizalea, Abelin Linazisoro eta Pello Otaegi, "Goenkale"ko Xatur bata eta Euxebio, Kike Amunarriz txiskolaria... Kantuak bertsoarekin dituen ahaidetasunengatik edo, ezpairik gabe, abeslariena da "Bertsolari"ri izen ilustre gehienak aportatzen dizkion gremioa.

Honela, Ruper Ordorika, Benito Lertxundi, Anje Duhalde, Ramuntxo Karrere, Pantxo Iri-garai, Peio Ospital, Amaia Zubiria, Gorka Knor, Mixel



Mari Azkargortak Ciudad Realekoan.

Jakinmina pizten zigun aspektu bat harpidedun kale-

Aire, Erramun Martikorena, Natxo de Felipe eta Niko Etxart berak ere irakurtzen dute "Bertsolari".

Abeslarien ugaritasun ho-

fora eta bi antitesi bila ditzaten aginduz; eta 119 liburute-gitan "Bertsolari" aldizkaria eskatuz gero, gusto haundiz emango dizute, beti ere ha-

dunetatik 8 irakasleak izatea. Gainerantzekoan oso lanbide bariatua dituzte eta badira jubilatua edo langabezia dauzen harpidedunak ere.

## Iparraldean Lapurdi da harpidedun gehien dituen herrialdea eta Zuberoan berriz harpidedun bakarra dago, Niko Etxart kantaria hain zuzen.

nen beste muturrean politikarrien urritasuna dugu; beharbada nik neuk izen gehiegi ezagutzen ez ditudalako ere, Imanol Murua Zarauzko alkateta izan da zerrendan topatu ahal izan dudako politikoa bakarra.

Zornotzako Arin-Arin dantza taldea, Donostiako Arrano Beltza, EKB, Bilboko Kafe Antzokia, EHNE, Antena3 TV, Mutiloako Udal liburategia edota Pasai Antxoko AEKkoarena bezalako harpidetza asko eta asko dago, orohar bost harpidedunetik bat izen-abizenik gabea dela esan daiteke.

Komunikabide, bertso eskola, kultur etxe eta mota guztietako erakunde eta taldeek eginiko harpidetzen artean euskaltegi, ikastetxe eta liburategiek eginikoak dira gehien errepikatzen direnak. Honela 33 euskaltegitan euskaldunberriek aldizkariak bertsolariei buruz emakumeen artean egin zuen inkesta altuan irakurri eta giza-eder-tasunaz debate bat egin dezakete, elkarrekin ligatzeko edo; 92 ikastetxetan euskarako irakasleak estualdi batean jar ditzake bere ikasleak Mañuren bertso batean bi meta-

mabost egunetara itzultzekotan.

### HARPIDEDUNAREN ARGAZKI ROBOTA

**A**dina, ikasketak, lanbidea, urtean entzundako bertso saioen kopurua... datu pertsonal batzuk eskatuz ekin diogu elkarriketa bakoitzari, 40 harpidedun hauek aldizkaria irakurtzen ari den hori nor eta nolakoa ote zaren asmatzeko pistaren bat emango zigutela-koan

Elkarrizketaturiko harpidedunen artean gazteena Ohiana Arakistain Eibartarra dugu 17 urterekin eta zaharrena berriz Julian Ezeiza "Aterpe" Hernaniarra 67rekin. Gainontzekoen adinak bi zifra hauen artean mugitzen dira eta gehientsuenek, 23k hain zuzen ere, 34tik 44 urtera bitartean dituzte. Ikasketei dagokienean kasik erdiak unibertsitatean lizentziaturaren bat eginak dira, baina badago eskola oso goiz utzitako mardoska bat ere, aurrekoen erdiak edo kopuruz. Lanbideari dagokionean berriz kuriosoa iruditua zaigu elkarrizketaturiko 40 harpide-

Bertsotan egiten al duten galdetu diegu hurrena, eta dozena batek bakarrik erantzun digu ezezkoa. Baiezkoa erantzun digutenean artean ordea bertsoa ofizioz edota afizioz soilez botazen dutenen artean bereiztu beharra dago. Ofiziodun bertsolaria diogunean Idiazabalko Antton Garmendi eta Iruñeko Lontxo Aburuz bezala txapelketetan ibiliak edo Berriatuko Jon Mugartegi bezala bertsotan boda, bertso afari edota guraso bazkarietan aritzen direnak esan nahi dugu.

Afizionatua berriz, kantuan lagunartean eta muturra pixka bat berotutakoan bakarrik egiten duena genuke, Orixako Patxi Goikoleak barre artean dioen bezala, honi bertsoa errez asko hasi haina bukatzea dezente kostatzen baitzaio.

Kategoria honetan sartuko lirake "Bertsolari"ko harpidedoaren gehiengo handi bat, edo deitu ditugun artean behintzat 40tik 27. Azkenik, kantuan ez bada ere idatzian ausartuko lirakekeen kategoria dugu, aurrekoaren ondoan bakanagoa baina baita txukunxeagoa ere. Entzutera esertzen den zaletu

bezala harpidedunak txapelketetan ez du hutsik egiten. Han izaten da final eta finalurreko guztietan, eta zenbaitetan baita beheargotiko kanporaketetan ere.


Txapelketez gain normalean bera bizi deneko inguruan ospatzen diren bertso saioetara ere joaten da. Diferentziak ordea saio hoiek kopuru batean zehazterakoan nabarmenduko dira: Jose Antonio errejidarrak urtean bost saiotara joaten dela dio, Teresa Laudiokoak bizpahirutara, Beasaingo Inigok dozenatik gora e. a. Hainbeste zenbaki ezberdin nituela eta, kezkatu, kalkuladorari heldu behar izan diot batzabesteak atera eta "Bertsolari"ko harpideduna urtean zenbat bertso saioetara joaten den deskubritzeko.

Zenbaki denak sumatu, 40gatik zatitu, eta halaxe atera zait: 4,81. Zenbaki honek ordea, bakarra izanda ere, ez nau batere gustora utzi. Nola joan daiteke sano dagoen pertsona bat urtean 4,81 saioetara?, bosgarrenaren bukaera aldera lo hartuta agian?. 4,81 hori ez da batere naturala, azken batean, pare bat gauza seinalatzeaz gain harpidedunaren argazki robotatua osatzea ezinezkoa baita Ezta beharrik ere; guztiak bertsozaleak zarete

eta guztiak ezberdinak.

#### ALDIZKARIAZ

Harpidedunei "Bertsolari"ri buruz duten iritzia eskatzerakoan balorazio orokorrak bukaerarako utzi eta lehenik aldizkariaren alderdi ezberdinetaz aritzea iruditu zaigu egokiena. Hasteko elkarrizketatuei "Bertsolari"ren jazkerak merezi dien iritzia eskatu diegu. Entzundakoetatik harpidedunak konforme azaltzen dira aldiz-



kariaren itxurarekin. Zenbaitetik marrazkiak ez dituela horren gustoko aitortu diegu, baina aldizkariaren propor-

tzioez, diseinuaz eta argazkiez kejarik ez dute izan.

Aipatzen du batek baino gehiagok bereziki argazkiak dituela gustoko. Kritikaren bat egitera animatu den bakkretarikoa Inaki anoetarra dugu. Diseinu zaharra gehiago gustatzen zitzaiola dio, berria difuminatuegia ote den. «Oraingoak Caja Laboraleko propaganda dirudi», gainertzen du umorez.

Edukiari tokatzen zitzaion ondoren. Hemen, konkretura jo aurretik, lan serioago eta arinxeagoen artean aukeratzeko eskatu diegu elkarrizketatuei zeuen gustoen nondik norakoaren ideiarekin bat eman ziezaguketelakoan. Zein dituzu nahiago, Bertsolamintzako ponentzien moduko lan serioagoak ala bertsolariei buruzko pasadizoak jasotzen dituztenak bezalako lan arinagoak?.

Idiazabalko Asierri, ingeniaria, lan serioak ez zaizkio batere gustatzen; aspertu egiten dute eta alde batera uzten ditu.

Juanjo Ruizen iritziak, lan horiek bertso munduan oso sartuta daudenei bakarrik interesatzen zaizkie eta irakurtzezagoko beharko lukete.

Alberto Gasteizkoari berriaz lan serioak gustatzen zaizkio. «Familiako kontuek aspertzen naute, nahiago di-

tut lan mamitsuagoak», esan digu. Bidarten bizi den Dioni Salaberria lan serioagoen aldekoa da. Hala ere, gehien-goak, hirugarren aukera bati heldu dio, aldizkariak jarrai-

zentez bertso gehiago beharko luke aldizkariak.

Bertso eskolei buruzko lanak ere gustora hartu ditujendeak. Joseba Ramirezek gustora irakurri zituela eta

tiz konforme daudenak, badaude orohar gustora badira ere kritika puntualak azaldu dizkigutenak, badago "Bertsolari"gatik zorionak eman dizkigun bat baino gehiago

## Euskal preso politikoek beren herrietatik urrunegi irakurtzen dute aldizkari hau: Xabier Belokik Alikanteko espetxean eta Luis Mari Azkargortak Ciudad Realekoan.

tzen duen formula defendatuz: Bi estiloen nahasketa edo alternantzia. Jesus Gonzalez oiartzuarrari, lan teknikoak zailagoak egiten zaikiola aitortzen duen arren, denetik sartzea beharrezkoa iruditzen zaio.

Itziar Zulaika debarrak berebat nahasketa jende desberdinarekin konektatu beharretik sortzen dela ulertzen du. Eta Hernaniko Ioseba Iurramendik batzuen eta besteen arteko oreka zaindu behar dela dio. Datuak maite dituenarentzat: Nahasketa 28 elkarriketatuk defendatu dute, lan serioagoak 7k, eta arinxeagoak 5ek.

Aldizkariak atera dituenetik gustokoena dutenaz ere galdetu diegu eta erantzunak era guztietakoak izan dira. Bertso bilduma da arrakasta gehien izan duena. Zumarragako Itziar, Idiazabalgo Asier ... dozena erditik gora dira atal hau gogokoan dutenak. Bildumaren inguruan, Eibaroko Ohianari bertso-paper lehiaketetako saridunak sarriago argitaratzea gustatuko litzaioke esaten du, eta Agerre Bekoa baserriko Joxe Migel Aizpuruaren iritziz, de-

mota honetako lan gehiago kaleratu beharko genukeela komentatu digu Donostiatik eta Eugenio Arraiza idazleak berriz hauen arteko harremanetarako tresna bezala bertso eskolei buruzko atal fijo bat jarriko luke aldizkarian, adierazi zuen.

Gainerantzekoan elkarrizketatuek ez dute koinziditu eta bakoitzak zera desberdinak agertu zituen: Jesus Mari Landak Eugiko bertsolariei buruz eginiko lan bat du gogoan eta Andoni Zulaikak berriz Egañak aspaldi batean atera omen zuen bertso papera; Mikel Morrisek, Coloradokoa izatez baina duela hamalau urtetik hona Euskal Herrian, Zarautzen bizi denak, Ameriketako bertsolariei buruz atera zen alea gustatu zitzaion; Iruñean irakasle dabilen Lontxo Aburuzak Joxerra Gartziak erritmari buruz egin zuen lana du gogoan; Jose Luis Ormaetxea gasteiztarrari, hau ere irakaslea da, komikiaren alea; Axun Atxegari, almanen batetako langilea, bertsolarien Tourrarena Azkenik, aldizkariaren balorzio orokorrari dagokionean, badaude aldizkariarekin guz-

ere eta baita aldizkariarekin disgustora dagoenik ere.

Normala denez, iritzi ezberdinak jaso baditugu ere, esan behar da, guztiekin hitzeging ondoen orokorrean harpidedunak aldizkariarekin gustora daudela iruditu zaigula. Beraz harpidegoak balorzio positibo bat egiten duela esango genuke, baina harpidedun bakoitzari berea kendu gabe noski.

### KUMPLITUAK ETA KRITIKAK

**E**txean gustora irakurtzen da aldizkaria. Bestelakoak liburutegian gordetzen ditugu baina bertsolarien aldizkaria sukaldean, beti ere eskuera-eskuera», komentatu digu Andoaingo Sebastianek. Patxi Goikolea eta Iñigo Egueren bat datoz "Bertsolari"k bere lekua ondo betetzen duela iritzien dutenean, eta azken honek alde zurretik barkatzen dizkigu izan ditzairegun hanka sartzeak.

«Utz nazazue pakean!... hau pasada bat da, ez dago eskubiderik !», hasi zaigu Debako Itziar telefonoa hartu bezain pronto. "Bertsolari"tik deitzen diogula esatea lortu

dugunean bakarrik otsandu da pixka bat.

Barkatzeko esan digu, azkenaldian kristoren pelmada ematen ari zaion liburu saltaile batekin nahastu gaituela eta. Jarraian luze eta gustorara aritu gara hizketan eta tartean kunplitu polit askoa ere bota digu, «sinpatia handia diot aldizkariari». Gustora barkatzen diogu emandako sustoa.

Mari Karmen durangarrak zorionak eman nahi izan dizkigu; Oretetako Maitek ale gehiago aterako lituzke urtean zehar; Iruñean bizi den Eugenioren geroz eta gehiago gustatzen zaio aldizkaria.

Kunplituak nahiago ditugun arren, bestelakoak entzutea ere komeni izaten denez, elkarriketatuei aldizkariari buruzko kritika konstruktiboa eskatu diegu. Honela bategi gehiagok aldizkariak bertsolari zaharrei buruzko gehiago beharko lukeela esan digu, Zestoako Andoniren iritziz, aldizkaria gehiegi garestitu da eta Lesakako Ioneri kanpoko fenomenoei buruzko lanak forzatuegiak iruditzen zaizkio.

Halere akats tipografiko eta ortografikoak dira harpideak gehien edo harpide gehien molestatzen dituenak. «Aldizkaria horrenbeste ordaindu

eta akats hoiek izatea ez da normala», kexatzen da Joseba Ramirez donostiarra. Andoaingo Sebastiani azkenengo alea ez zaio batere gustatu eta jorrazteko beste gairik ez ote genuen galdetu digu. "PP botella" izeneko komikia izan da gehien penatu duena, oso gustu txarrekoa iruditu zaio. «Ez da Arzalluz eta Ana Botella direlako, baina gizon bat eta emakume bat komunera sartu eta mutil honek izan dituen elukubrazioak lotsagarriak dira», esplikatzan du el-



karrizketa bukatze aldera.' Bilboko Andres Osa "Sakona" berriz, aldizkariarekin disgustora azaltzen zaigu, indi-

gestoegia iruditzen baitzaio. «Arin eta herrikoia goa litekeen zerbait da behar duguna», gaineratzen du.

## BERTSOLARITZA

Aldizkariari buruzkoekin amaitu ondoren bertsolaritzaren egungo egoeraren analisi bat egiteko eskatu diegu elkarriketatuei. Bakarne Basurto, Agustin Beloki eta Mikel Errasti, gauzak azaltzeko modu arras ezberdinarekin bada ere, bat datoz bertsolaritzak azken urteotan izandako bilakaera deskribatzerakoan: "«Duela bizpahiru urte moda© modan zegoen bertsolaritza, baina boom-aren ondoren egoera hoztuz joan da», komentatuz hasi du bere analisisa Bakarne.

«Legazpin, orain dela hogeita urte 200 pertsona biltzen zuten bertso saio bategi, orain dela bost 700en bat, eta egun berriz 130 inguru», esan zuen Agustinek. «Peñak irabazi zuen Gipuzkoako Txapelketan bertsolaritzak bere gailurra harrapatu zuen eta orain gainbehera doa», adierazi zuen Mikelek.

Hauen oso antzerakoak dira gainerantzeko 37 elkarriketatuek esandakoak ere. Ez da ordea bilakaeraren deskribapenarena bertsozale batzuren eta

besteen analisisen arteko koinzidentzia puntu bakarra, asko eta asko bat baitatuz bilakaera honen zergaitia azaltzerakoan ere: ETBko "Hitzetik hortzera" programa izan zen bertsolari-

koekin dabil, «Bertsolari gazteak badira, baina bertsozale gazte gehiegirik ez». Beasaindar honi bertsolari gazteek formula berriak probatuaz esparru propio bat bilatu behar-

## BERTSOZALE ELKARTEA

Joxerraren "Hitzetik hortzera" programarekin ederki gozatu genuen bertsozaleok. «Egoki jarrita zegoen bazkalondoko ordu horretan»,

# Ondazarte, Barin, Engaragartza, Odriozolatxo, Attoja Berri... harpidedunen helbideen artean 156 baserri izen kontatu ditugu.

tzaren boom-a ekarri zuena eta programa kendu zutenetik asko jeitsi da giroa. Hala ere, eta programa dela eta ez dela gauza dezente eta interesgarriak jaso ditugunez, honen ingurukoak aparte batean jarri ditut eta aurrez bestelakoei heldu.

«Amurizaren txapeletatik ona zenbaitek katuari bosgarren hanka bilatu nahi izan dio eta horrek giroa asko nahastu du», dio Agustin Belokik, giroaren bajualdiaz galdeztzen diogunean, zeharka bada ere, bide alternatiboak urratu nahi izan dituzten bertsolari batzu seinalatuz. «Txapelketa eta gajartzaileren aurkako planteamenduak antzuak iruditzen zaizkit», dio Jon Mugartegik bere aldetik beste esplikazio bat ematen digu.: «Bolada batean, programa, txapelketak e.a zirela eta bertso gehiegi entzun da eta honek jendea aspertu egin du. Badakizu jeneroa ugaritzen denean merketu egiten da». Mari Karmen Iturria bertsolariaren etorkizunak dauka kezkatuta, «gazteak bertsoarekin betirako engantxatzea lortu behar dugu»,dio.

Inigo Eguren ere antzera-

ko luketela iruditzen zaio. «Formula tradizionalaz zalego tradizionalaren aurrean bertsozale berritzailea erakusteak ez du aurrerapausu handirik suposatzen», botatzen die gazteei.

"Deia"n bertsolarietaz informazioa ematen duen Andres Osari nabari zaio bertsozale arruntak baino buelta gehiago emanak dizkiola gaia eta luze aritu zaigu bertsolarietaren beheraldiaren zergaitiez. Batetik bertsolarietari botatzen dizkie erruak, bere hitzetan ez baitute asmatzen saioetara jotzen duen bertsozalearekin harremanetan jartzen.

Baina bertso saioetan bertsolaria eta bertsozalearen artean ematen den inkomunikazioaren errudun nagusiak gajartzailak dira bere iritziz. Gajartzaila gehienak fantasma batzuk direla dio, gaia jartzen dutenean entzulegoari interesatzen zaiona baino gehiago beren luzimendu pertsonala bilatzen dutela: «Xelabrekeria eta kontu ugari izan ditzakeen herrian gai jartzailak guzti hauetatik paso egin eta ilargia eta martitzi buruz aritzeko eskatzen die bertsolarietari...»

dio Jesus Mari Landak, «programa sakratua zen gure etxean», Martxeli Alegiakoak.

Guztiek ere faltan botatzen dute. «Ni behintzat bertsozale telebisiboa nintzenegun nahikoa galduta nabil bertso kontuetan», aitortzen du Inaki Olanok; Jesus Gonzalez oiartzuarraren iritziz berri «neguan, saio gutxiago dagoenean, oso ondo etorri ohi zen».

ETB eta Bertsozale Elkarrearen arteko ulertezinen inguruan bigarregoa aldeko azaldu dira guztiak. Gehienek arazoaren berri handirik ez dutela aitortu digute baina zenbaitek bere iritzia ere eman nahi izan du. Honela Lontxo Aburuzak ETBren zuzendaritzaren jarrera apolitikogo baten beharra ikusten du, «bertsolarietaz betidanik izan ditu bere-bereak kritika, satira eta ironia, eta harrigarria egiten zait Euskal Telebistak hori onartu ezina».

Zestuako Andoniren ustez ere ETBk bertsolarietari libre utzi beharko lituzke eta Joseba Iurramendiri ETBk Elkarteari saio bat egiteko aukera eta autonomia eman beharko liokeela iruditzen zaio. •


Testua:  
Laxaro AZKUNE

# Apustuak


## bertsolarietan



*a* pustua eta berak sortzen duen zaltetasuna euskaldun askok berekin du bizi den denboran eta horretan ez dira nonbait bertsolariak ordezkari eskasena. Ez dezala ordea irakurleak uste hemen dirujokalari itsurik aurkituko duenik, apustua elkar probatzea edo neurtzea baita sarritan, batzutan indarra, beste batzutan trebetasuna eta sarritan norbere inteligentzia. Dohaia bezain garrantzitsua baita apustua eghiterakoan batek darabilen malezia eta bizkortasuna. Ez da gezurra apustua korbatarekin irabazi behar dela eta ez plazan. **Egiterakoan beraz.**



Urtero izan dira fitxaje berriak Antzuolan.



**E**ZAGUNAK DIRA ZABALA AMEZKETARRA ETA TXABALATEGI HERNANIARRAK 1.801EAN BILLABONAKO PLAZAN BOSNA ONTZA URRE JOKATU ZIZKIOTELA ELKARRI. Bi orduz 4.000 lagun-en aurrean elkar neurtu ondoren epaile ziren Aizarnazabalgo sakristaua, Fernando amezketarra eta D. Jose Mendizabal apaizak, bertan bildutako jendeak bezalaxe bata bestea adinbat zela erabaki zuten. Gainerik ez zen izango diru jokalaririk, bestela...!

Bertsolariek gaur egun ez dute antzeko apustu edo neurketarik izaten baina esan liteke apustu zaletasun hori txapelketek kamuflatzen digutela gaur egun. Ez dugu ba gaurko lan honetan bertsozko apusturik agertuko, horiek plazaz plaza edo bazkari edo afalondotan egiten baitituzte sarri bertsolariek inork gutxien uste duenean.

Ezagun xamarrek dira baita ere, Basarri bertsolari gazteak, Donostian txapela irabazi ondoren, Txirritarekin probatu behar izan zutenekoa. Txapelketak guzua berria ziren eta Txi-

rritak txapelketaz aparte eta bertsolariek garai hartan ohi zuten legean trebeziarik bazuen probatu nahi izan zuten nonbait. Txirritak frogatu omen zuten beste material batez osatua zegoela Basarriren burua. Zepairekin ere probatu izan behar zuten goierritarekin baina Txirritarekin gertatu zen antzera gertatu behar izan zuten. Zabaldua da baita ere Mitxelena gazteak herrian nahiko bertsolari egon eta kanpotarrak ekartzearekin ados ez zegoelako balkoian probatu nahi izan zuela Basarriekin. Basarrik erakutsi zuen han ere bere neurria baina bai Mitxelenak ere bere ausardia. Gozatu zuten entzuleek. Gerora ez zen bertsolari asko geldituko Mitxelenarekin bere Atamitx ezagunean aproba bereziren bat egin gabekorik. Luzean baitzuen bere abilitatea. Amuriza ere hark utzi omen zuten bere hitzetan, "adarrak jasotako idiaren antzera".

Geroago hamaika apustutan katramilatuturik ikusiko dugun Peñagarikano gazteak, bertsoan hasi berria oraindik, asteasuarrekin San Ageda bezperan koplari zebilela, Bautista Kortajarena, Pello Errotaren biloba, "Zuia" ezize-

nez, tabernan ikusi zuen. Lagunek, "kantaiok Zuia!" esan zioten zirikatuz. "Bautista zuria" kantatu omen zion Peñak eta seko haserretu gure Bautista. Hurrengo feria egunean Tolosan "anoetar, kolore berdoztadun, figura gaiztoko mutilari" miloia jokatuko ziola, bota omen zion desafio beste anoetar bati. Bautista hau bera Amurizak lehen txapela irabazi ondoren Azpeitira etorrita ibili izan behar zuen azpeitiar bertsolariren batekin Amurizari jokatzeko.

## BERTSOLARIAK APUSTUETAN

**I K U S L E :** Bertso apustuak baino gehiago dira gaur egun bertsolariek elkarri kirolen baten jokatu izan diotenak. Berez bertsolari ugari dira apustu zaleak. Basarri bera hor izan dugu bere bizitza osoan hainbat apusturen lekuko eta berriemate. Gaur egun Txomin Garmendiak ere ez dizkigu gutxi ikusi

**Basarri bertsolari gazteak, Donostian txapela irabazi ondoren, Txirritarekin probatu behar izan zuen. Txapelketak gauza berria ziren nonbait.**

eta kontatzen. Aizkora edo harrijasotze apusturik gehientsuenetan ikus daitezke bertsolari ugari.

Hala ere gaur eguneko bertsolariek ez dute elkar probatzerakoan segan, aizkora edo korrika egingo, pilota edo bizikleta dituzte kirolrik gogokoena eta taldean, baita futbola ere. Azken kirol hauek duten famaren haritik moderniztuak ditugu bertsolariak ere eta herri kirol horietan ikasi gabeak. Ikusle gisa, frontoietan zaleago dira gaur egunekoak zezenplazako apustueta baino.

**F U T B O L E A N :** Gaur eguneko bertsolariek hala ere apusturik gogorrena 1.984-85 inguru hartan Txapelketa beren kabuz antolatzeke hartu zutenean egin zuten. Emaiza ona utzi zuen eta fruituak ikusi besterik ez dago. Hala ere bertsolariak ez zuten horretan beren abildadeak neurtu nahi izan zituzten eta behar izaten dituzte urtero. Horretarako futbolista izandakoak bertsolari zeinen erraz berziklatzen diren frogatzen da urtero, beste batzuk bizi guztirako erdi bertsolari edo

bertsolari frustratu izengoitiarekin bizi behar izaten dutenean. Badakite ordea bertsolariek galtzea zer den. Gehienetan galdu arren, beti ez esateagatik, urtero prest izaten dira fitxaje berriak egin eta ikaragarritzko egurra emango dutela sinistuta Antzuolara joateko. Eskerrak bertsolarako duten memoria ona ez duten futboleko emaitzak gogorazteko.

**B I Z I K L E T A N :** Bana-ka edo binaka ere badute ordea neurketak antolatzeke ohiturarik. Oñatiko bi txirindulariren aurka neurtuak dira Gipuzkoako txapel-dun ohia eta egungo Euskal Herriko txapel-duna. Udanara igotzen Jabi Aldekoa eta Mikel Lizarralde esku barik eta Peñagarikano eta Egañak baino 10 minutu lehenago heldu behar. Oñatiarrek ez zuten apustua egiten asmatu edo zortea izan zuten aurka baina bertsolariak nagusitu zitzaizkien. Lizarralde txirindulariari

katea irten egin zitzaiolako edo Peñagarikanok Egañari eman zizkion mehatxuengatik baina minutu eta 20 segundu soberan izan zituzten. Izan ere jende asko inguruan denean bertsolariak hazi egiten baitira, ofizioak erakutsi baitie jende aurrean lan egiten. Dakiguna da txirindulari hauek aurtan egin duten apustuan Peñagarikano epaile gisa eraman dutela eta nahiago izan dutela Inurategi mendizaleekin beren indarrak neurtu.

**P I L O T A N :** Bestalde elkarri pilotan jokatu dizkioten partiduak ezin konta ahala dira. Peña sarritan tartean izaten da baina ez du jokatu oso seguru ez badago. Aurtan jakin dugunez Antzuolan futboleko ez jokatzearren arrazoia horretan bilatu behar omen da, galtzaile izan nahi ez duelako. Horregatik asmatzen ditu nonbait bere forma, lesio edo okupazio, aitzaki ugari.

Pilotan badira apustu sonatuak, orain dozena bat urte edo Peñagarikano eta Millanek Manolo Arozena eta Bittor Elizagoien aurka jokatu zuten Lesakan, Nafarroa-Gipuzkoa arteko lehia formal gisa eta epaileak ere ez ziren



Bestalde elkarri pilotan jokatu dizkioten partiduak ezin konta ahala dira. Peña sarritan tartean izaten da baina ez du jokatu oso seguru ez badago.

edozein moduzkoak, Jon Lopategi "Beltza" izan omen zen epaile inpartziala. Bazkaria omen zuten jokoan eta irabazleek ez zuten erruki haundirik izan galtzaileekin eta nafarrek faktura serio xamarra ordaindu behar izan omen zuten.

Albizturren ere azken txapelketak berak irabazi omen ditu eta zozketan zorte ona ala azpikolana ez ote darabilen dioten mihi gaiztoek. Alkizan Euskitze eta biek Alkizako txapelkunak menpean hartu zituzten formalidade osoz jokatu ondoren. Jantzi txuri, paseilo, epaile eta guzti. Aurten ere txapeldunen aurka neurtu beharko dute. Ez dago esan beharrik profesionalen partiduek baino jarraitzaile gehiago bildu ohi dutela baina ez direla oso itxura trakets ez aritzen pilotan, ikusi eta kontatu baino zerbait gehiago egiten duten seinale pilota arloan. Ezaguna izango baitu irakurleak, partidu garrantzitsu guztietan agertzen digutela telebistako kamarek Peñagarikanoren irudia ikusle ilustreen zerrendan. Eta ezagunagoa berriz Euskitzeren kontalari ofizioa. Euskitzek eta Millanek Usurbilen jokatuakoa ere kontatze-

koa da ikusi apenas askorik egin zuten baina. Usurbilgo pilotalekuan, Zubietako saio baten ondoren, auskalo zein ordutan, autoen argira jokatu zuten. Millan nagusitu zitzaion, ehizean istentzean ibiltzen ohituago nonbait Albizturkoa. Erronka formala bota zion ordea Euskitzek Zaldibiko pilotalekuan jokatzeko, epaile, botilero eta guzti. Euskitze nagusitu omen zitzaion oraingoan baina pilotari profesionalak prestaketa eta taktiketan asko lagundu omen zioten. Joxan Tolosa amezketarrarekin ordu dexente sartu omen zuen eta fruituak ere horrelaxe eman zizkion.

Peñak berak irabazitakoak bakarrik gogoratzen ditu baina badira galdu zuenekoak gogoratzen dionik ere. Jon Sarasuak memoria txarra du baina hori ez zaio nonbait ahazten. Apotzagan, bere etxean ba, txakurrik txikiena ere bere etxean harro prantatu ohi da. Sarasua eta Izarzelaiak Telleria eta Peñari partiduren bat irabazi behar zioten. Peñak hala gogoratzen du, behin bakarrik irabazi ziola eta bera Liliputen. Peña frontoi haundiko pilotaria izaki. Gehientsuenak menpean ditu nonbait Pe-



Urteroko bidaia izaten da Tourrekoa baina bertsolarien artean gelditzen dira horko gorabehera gehienak. Aurtengoak ordea marka guztiak hautsi dizkigu.

ñagarikanok baina Euskitzerekin neurtzeko kezakak omen dabilzki. Luzatzen ari da apustu hori. Mendeko edo mende bukaerako apustua izan daiteke. Bakoitzak 12 lagunuen taldea aurkitu behar du bere aldetik. Osatu xamartuak omen daude taldeak. Bi arkume ere proiektuan dira eta ez dute horiek erditu behar dituzten ardiek asko imaginatuko beren umeen paraderoa. Mila zazpiehuni omen dago anoetarraren alde baina ez jakin ezkontzeak zer nolako indarrak eman diezazkiokeen Euskitzeri.

**T O U R R E K O I B I L L E R A K :** Ez da ordea pilota bakarrik apusturako aitzakia. Aurrez ikusi duzuen bezala bizikletaz ere neurketa ugari ari dira izaten. Anjel Mari ez dabil urruti honelakoetan ere. Tourmalet mendia igotzen ere egin izan behar du apusturen bat orain dela urte batzuk, afari horren ordurik iristen ez bada ere. Urteroko bidaia izaten da Tourrekoa baina bertsolarien artean gelditzen dira horko gorabehera gehienak. Aurtengoak ordea marka

guztiak hautsi dizkigu. Esan beharrik ez dago Peña anoetakoaren aldekoa dela. Ez dakit ziur zenbat apustu dituen irabaziak baina dirutan kontaktzen hasiz gero Olanok berak irabazi duen baino gehiago irabazi duela uste dut hortxe-hortxe. Arozenari Berzinek podiumik ezetz egin; Egañari Olano Berzinen aurretik baietz; Sebastiani Olano Indurainen aurretik baietz; Mendizabali, Manueli... Denak kobratzea lortzen badu hori mutila. Aurtengo neguan lepondoa loditu behar zaio. Dirutan izan dituen irabaziak ez ditugu jarriko Hazienda ondoren has ez dakion.

**B E S T E Z E N B A I T K I R O L :** Futbol zale ere bada baina ez Errealzale. Andoni Imazi, iazko Espainiako itzulian jokatu omen zion baietz Olanok Errealak ligan baino postu hobea lortu. Hartuko zukeen Errealak Olanok atera zuen bigarren postua! Olano artean ez zen gainera sonatua ere baina bai igarri gure Peñagarikanok.

Orain arteko apustuak zerbait badira baina oraindik badira bereziagoak. Xabier Euskitzek



## Xabier Euskitzek belarritakoa apustu baten ondorioz jantzi zuen. Jauregi panderojoleari palaz jokatu zion apustuan galtzaileak bibotea utzi edo belarritakoa jarri behar zuen

belarritakoa apustu baten ondorioz jantzi zuen. Jauregi panderojoleari palaz jokatu zion apustuan galtzaileak bibotea utzi edo belarritakoa jarri behar zuen, berak aukeran. Euskitzek galdu zuen eta belarritakoa jantzi zuen. Kirol konbinatuetan ere jokatu izan dute. Euskitzek Koldo Aldalurrekin Martin Agirre eta Fermin Aramendiri, Tolosatik Alkizara bizikletan eta gero trinketean jokatu behar zuten, bizikletan ateratako 15"k tantua balio zuen. Bizikletan parez-pare ibili omen ziren eta pilotan esan beharrik ez dago nor izango zen nagusi, bestela Xabierrek kontatuko.

Apustuetan ordea gazteagoak ere hasiak daude. Hauek ere eman diote beren ikutua oraingo zerrendari. 95eko Bertsolari Eguna antolatu behar zuten. Bilera Errezilen izan zen eta hizketaren ondoren ona da kirola. Errezilgo pilotalekuan bost lagun ziren eta Estitxu Arozena eta Aitor Mendiluzek, Maddalen Lujanbio eta Jesus Mari Irazu izan zituzten arerio. Unai Agirrek bata edo bestearen alde egin behar zuen ikusle izateaz gain. Galtzaileak egun horretan biziki dotore jantzita joan behar

zuen, hots, neskak soineko apainez eta ongi pintaturik; mutilek traje eta korbatatz, hori zen zigorra. Partidua 21na egin zuten eta denak galtzaile izan balira bezala dotore asko ikusi genituen egun horretan, noizbait behar eta...

Hernaniko taldearen inguruan pala txapelketak tradizio handia dute baina ez dute nonbait tantoak besterik jokatzen eta horrelakoak ez dira gogoan jasotzen.

Gaurko bertsolarietan garai batean baino baserritar gutxiago badago ere badira bakar batzuk eta hauek ere beren neurriko apusturen bat ba omen dute bidean, segan eta aizkoran gogor aritu omen dira entrenatzen Millan eta Olaso. Ez dakigu ezer seriorik aterako den.

Honaino heldu dira nere ikerketak. Ez dut zailtzarik, kontatu didaten guztia ez dela guztiz egia izango eta nik jaso ez dudana apustu zelebre ugari gelditu izango dela izkutuan. Hurrengo baterako ere behar dugu zer jana, dena ezingo da lehen ahaleginean agortu. •

B E R T S O

# bilobu ma

## LAZKAO TXIKI V. BERTSO-PAPER LEHIAKETA

Antolatzailea: Argi-Berri Elkarte  
Herria: Ordizia  
Data: 1996ko irailan  
Maila: Gaztetxoak (13 urte arte): 1 saria  
Autorea: Ainara Zubeldia  
Doinua "Balentein Berriotxoarena"

### *Gure eskola*

1

Eskutik heldu eta eskolara  
hiru urte nituela.  
Ate hartatik sartu orduko  
a ze aurpegi goibela  
nahikoa faltan botatzen nuen  
nere amaren epela.  
Sentitzen nintzen aske nahi eta  
preso dagoen bezala.

2

Lehen mailara iritxi nintzen  
bizirik nengon oraindik  
batuketa bat galdetzen zuten  
ta eskua altxatu nik.  
Gaizki erantzun ta burukoa  
baina halere alperrik  
ez nuen uste batuketa bat  
horrelako zaila zenik.

3

Bi urte ere igaro ziren  
azterketa bat orduan.  
Lehena eta ezin gainditu  
moralara neukan zoruan  
ta maisuari txikle pusketa  
pegatu nion buruan  
ezker gantxo bat nolakoa zan  
orduantxe jakin nuan.

4

Bosgarrengoa bukatu nuen  
eta seigarrena hasi.  
Mutil gazte hark haurtzaroaren  
muga egin zidan hausi  
amodioa ta ikasketak  
egin nituen nahasi  
ta udarako zortzi suspentso  
utzi nituela kasi.

5

Zortzigarrena aprobatzeko  
nahiko joko berezia  
niri begira fraile zahar hura  
a zer nolako grazia  
eskolaraino joaten nintzen  
gona motzakin jantzia  
nere iztarrek egiten zuten  
egin beharreko guztia.

6

Hamaika parre egin genuen  
fraile zaharren kontura  
orain nijoia institutura  
tokatzen zaidan lekura  
momentu hontan nola nagoen  
badet esateko gura

txahal txiki bat ikulupetik  
zelaira doan modura.

## LAZKAO TXIKI V. BERTSO-PAPER LEHIAKETA

**Maila:** Gazteak (14-18 urte).

**I. Saria.**

**Autorea:** Leire Ostolaza.

**Doinua:** "Itsaso hori dago zatarra"  
(Naufragoarena)

### *Eskalearen biletta*

1

Lehen jokua nuen apeta;  
irabaziak neuzkan gordeta  
baina pixkana galtzen joan zen  
egin nuen diru meta (bis)  
"Jokua ez da errenta"  
hargatik nago erreta  
eta amorruz beteta,  
eta dakit honraz nola demontre



prestatu neure hileta  
gaur eguneko harrotasuna  
poltsikoan dago eta. (bis)

2

Puskatutako botak oinetan  
bi zulo handi bi belaunetan  
zintzilik ditut galtzetan. (bis)  
Mangarik ez besoetan,  
mantxatxo bat sorbaldetan  
ta zazpi bat lepo bueltan,  
hortzak ustelak ta hotzagatik  
ebakiak ezpainetan,  
negar malkoak izozten zaizkit  
matrail hezurtsu hauetan. (bis)

3

Bazter batean elurretan blai,  
dirudun jende harroaren zai,  
baina guztiak pasatzen dira  
errukirik gabe, lasai. (bis)  
Ene! Zenbat gose usai!  
Ez naiz zutik jartzeko gai,  
gaixo azal eta errai...  
aldakit ziur Jainkoa bera  
egin dela nire etsai,  
bekaizkeriak zigortzen ditu  
baina pobreak ere bai. (bis)

4

Denak ematen dute bizkarra  
eta aldentzen doa indarra;  
lehen, batzuek esan didate:  
"Alde hemendik zaharra" (bis)  
Jauna hau da zoritxarra  
bazter hau utzi beharra  
hau nuen etxe bakarra.  
Kalean zehar abiatu naiz  
emanez pauso baldarra...  
Oraina baino gozoagoa  
izango al da biharar! (bis)

5

Nire aurrean jauregi latza  
eta ondoan bere baratza,  
leiho batetik han azaldu da  
norbaiten ile narratsa. (bis)

Zirudien aberatsa,  
eman dut lehen urratsa,  
hain estu hartuaz hatsa!  
laguntza eske joan natzaio,  
berak asatindu erratza...  
Aberats bati eske joatea  
izan da nire akatsa. (bis)

6

Etxe handia zen alajaina,  
bazen aitona harentzat aina;  
bistan jenderik ez zen aurkitzen  
zertako egin hazaina. (bis)  
Ezin naiteke engaina  
holakoa da oraina,  
hartu nahi diot tamaina...  
Orainartean dirua ona  
dela sinestu dut baina,  
bihotza usteltzen duen urrea  
ez da hain urre bakaina. (bis)

7

Kanpoko elur edo izotza  
hori da nire etsai zorrotza,  
giza txar horren erruagatik  
gainean dut heriotza. (bis)  
Hark ere du bizi motza  
zeren diruaren hotsa  
denentzat da lagun hotza;  
dirudienez, errukiakin  
aldegin zitzaion lotsa,  
urrezkoa du jauregia ta  
urdearena bihotza. (bis)

8

Uste dut laster hilko naizela  
minberatua daukat sabela.  
Iruditzen zait pentsamentuek  
adarra jo didatela. (bis)  
Nola ulertu bestela,  
penak eraman nauela  
uholde batek bezala,  
zorionetik urrun galdu da  
bizi-pozaren batela,  
behin betirako urpera noa.  
Agur! Hobe da honela. (bis)

## LAZKAO TXIKI V. BERTSO-PAPER LEHIAKETA

**Maila:** Helduak

**I. Saria**

**Autorea:** Rufino Iraola

**Doimua:** "Mutil koskor bat".

### *Guardasola*

1

Lo-ezinaren amets esnaiak  
eskaini zidalako bart  
hara, andrea, nik gaur zuretzat  
gogoeta hauxe dakart:  
lehenago biok bakarra ginen,  
orain elkarrengandik at.  
Ene maitea, aldatu gara  
aldatu gara ta zenbat!...  
Gaur bi guardasol gutxi ditugu,  
lehen gehiegi genuen bat.

2

Guri begira hamaika jende  
egoten zen inbiritan.  
Non geunden ere ez genekila  
ibili izan ginen bitan:  
bustitzen zenik konturatzeke,  
guardasol gabe euritan;  
edo elkarren izardi tantak  
xurgatuaz eguzkitan....  
Lehen begikoa genuen elkar  
eta gaur elkar begitan!

3

Batzen gintuen kordel mardula  
bilakatu zaigu pita.  
Gaur aterpetik erten ez arren  
sarri gabiltza bustita.  
Hitz potxoloak ahaztu edo  
bihurtu dira errita.  
Orduan, beti: "zuri zorretan";

orain "niri ezin kita"...  
Itukinaren habia da gaur  
lehengo maitasun garita.

4

Aste osoan ilusiozko  
bakardadean lanean:  
ni Beasaingo CAFen eta zu  
Fonda Martinzenezan.  
Ostegunetik ostegunera  
Donostiara trenean;  
eta igotzen laguntzen nizun  
nahiz eta egon sasoi onean.  
Borondaterik onena beti  
beharrak ez dagonean!

5

Barandiaranen errefreskua  
eta Izarren pastela,  
plaiara ere joan ohi ginen  
edo zinera bestela,  
ta Igeldora sarritan hega  
bi usakumek bezela,  
gure bihotzen taupada hotsa  
itsasoan galtzen zela...  
Protagonistak zahartu ahala  
aldatzen joan zen nobela!

6

Putzutzulo bat ikusi orduko  
besotik heldu elkarri:  
"Kontuz maitea, hor sartu gabe,  
nire ondora etorri".  
Edota inoiz semaforoa  
baldin bazegoen gorri:  
"Kontuz potxola, orain ez pasa;  
begira, mesedez, horri".  
Deskuidoaz hanka zapalduz gero  
barkazio eske larri.

7

Eta gaur berriz putzuzuloan  
sartuagatik zangoa,  
elkarrengandik jasoko dugu  
gozorik gabeko soa,  
laguntzearren hurbildu ordeaz



urrutiratu besoa,  
semaforoa nahiz gorri egon:  
"Segi aguro atsoa".  
Hortik aurrera jakina dago,  
haserre egun osoa.

8  
Guardasolaren irudi hori  
irudi esanguratsua!...  
Ez al da oso inportantea  
eraman nahi den mezua?  
Esan dezadan, nahiz askok hartu  
halako sermoi-kutsua:  
bizitza osoan da zaindu behar  
amodioaren sua,  
zahartzaroen ahula delako  
eta gaztetan itsua.

## LAZKAO TXIKI V. BERTSO-PAPER LEHIAKETA

**Maila: Helduak**

**Autorea: Aitor Sarriegi**

**Doimua: "Gogoan daukat, ez du aspaldi"**

### *Etxordeko sagarrondoari*

1  
Etxe ondoan bada lursail bat  
etxetik ez hain aparte  
hura izan dut nik jolasleku,  
futbolzelai eta parke.  
Izan zarenik ez onartzeak  
niretzat lotsa lekarke  
urte askotan zu izan arren  
gure etxordeko parte

izan zarenik ez naiz ohartu  
erauzi zaituzten arte. (bis)

2  
Negu hotzean elur maluta  
ugarituen magala  
udazkenean orbel jario,  
udaberrian zozo andanak  
zugan pausatu ahala  
zure enborra ekialderantz  
bideratzen zihoala  
gure etxea eguzkipetik  
babestu nahian bezala. (bis)

3  
Guztiok izan garenez noizbait  
basati edo barbaro  
barrutik ere zu igotzea  
sarri zitzaidan igaro.  
Saiatu ere saiatu nintzen  
etsi arren geroago  
erdi aldera igo bai, baina  
ezin jarraitu gorago.  
Errespetua sartzen zenidan  
beldurra baino gehiago. (bis)

4  
Ez dakit ziur zeunden artean  
nola ez zaitudan maita  
motoserraren hotsaren orde  
zure garrasia baita.  
Ale onik ez zenuelako  
zutik ez zintuzten nahi ta  
alfer alferrik hor ibili naiz  
galdezka eta jarraika:  
-Ale bat ona edukitzea  
ez al zen nahikoa, aita? (bis)

5  
Adar solteak bazter batean  
tristuraz ditut ikusten  
sufrimendua salatu nahian,  
etsipena erakusten.  
Oso-osorik bota zintzaten  
ez zuten ez zuten  
arratsalde bat pasatu zuten



eguzkipean inauten  
akabatzea aski ez balitz  
torturaz ito zintuzten. (bis)

6

Zelai erdian belar artean  
ageri da zure oina  
zuretarako eskasa eta  
suak galdua zurtoina.  
Zure borrarero bihurtu arte  
zure aleen ohoina  
tratamendutik tratamendura  
hondatu zizuten soina.  
Itzala eman zenigun eta  
jaso zenuen pozoina. (bis)

7

Hasierako urte haietan  
gehienak onak emanik  
azkenerako ale on asko  
txartuak ziren jadanik.  
Hego haizea sentitu ahala  
ondo gogoan daukat nik  
bilketa lana egiten zela  
garai hau bera izanik.  
Aurten amonak ez du izango  
ale txarrak biltzen lanik. (bis)

8

Agur zu lorán ikuste hutsak  
sortzen zidan irriparra  
agur amonak egiten zuen  
konpota gozo samarra  
agur zurekin tinkatu nuen  
teniseko sare xaharra!  
Goroldiodun zure oinera  
erori ohi zait negarra  
zure itzala ez baita izan  
kendu didaten bakarra (bis)

9

Hara azkenik zureganako  
malkoen eta negarren  
sentimenduak hau egiteko  
ze puntutara nakarren...  
Atzo hor zinen, gaur falta zara...

barkatu gaitzazu arren!  
Zahartzaroan jausitakoan  
errotik erauztearren  
Beti "etxorden" egongo zara  
begiz ikusi ez arren. (bis)

10

Hamar bertsoan saiatu arren  
inola ezin da esan  
orain arteko urte hauetan  
niretzat zer zaren izan.  
Adar txiki bat begiztatu dut  
belar hezeen gerizan  
eta zaintzea deliberatu  
zu zaindu zintuzten gisan  
nere semeak zure semea  
zuhaitz ezagutu dezan. (bis)

## ON MANUEL LEKUONA IX BERTSO PAPER LEHIAKETA

**Antolatzailea:** Girizia Elkartea

**Herria:** Oiartzun

**Data:** 1996ko ekainean.

**Maila:** Gazteak (16 urte arte)

**I. Saria**

**Autorea:** Ekaitz Goikoetxea

### *Drogaren hatzaparretan preso*

1

Begi bietan malkoak dauzkat  
bihotzean arrenkura,  
eguzkiaren izpi arteik

begira nago zerura,  
gau denetako ametsen kaira  
politaren eremura,  
txorien abesti hura,  
ibaiak daraman ura,  
a zer nolako lilura,  
jada guztia baztertua dut  
ta ezerk ez nau ardura,  
drogaren menpe bizitzekotan  
zertan etorri mundura. (bis)

2

Sufritu ditut dagoeneko  
hainbat eta hainbat pasarte,  
ezin naiz egon denbora luzez  
beregandikan aparte,  
halere zenbat gorroto dedan  
ez naiz egon denbora luzez  
beregandikan aparte,  
halere zenbat gorroto dedan  
ez naiz hartu gaur arte,  
hilabetez hilabete,  
erabat galdu bitarte,  
nire buruari kalte,  
modu hontako istori denek  
amaiera latza dute,  
hilda dagoen bihotzak ez du  
gorputz bizidunik maite. (bis)

3

Mutil gazte bat besterik ez naiz  
etorkizun kuzkurtua,  
zoritxarraren era honetan  
egokitu zait patua,  
senti dezaket, barnean daukat  
zainetaraino sartua,  
herio debekatua,  
bizimodu apurtua,  
gatibutza behartua,  
zure zera nire guraso, lagun  
eta ametsen portua,  
zoaz albotik, utzi nazazu  
droga madarikatua. (bis)

4

"Ez naute maite, gorroto naute"

pentsatzen nuen haseran  
eta sendagai miragarri hau  
jarri zitzaidan harreran,  
probatu nuen, gustoko nuen  
andagatzaileen eran,  
zer sendagai klase zeran,  
orian badakit soberan,  
beranduegi aukeran,  
mundu osoak ikus dezala  
nik zein akats egin dedan,  
beste gazte bat eror ez dedin  
nire segada berberan.

5

Oinazeetan murgildua naiz  
zori gaiztoaren legez,  
neu ez naiz ongo sentitzen eta  
ama gaixoa oinazez,  
gauetan ez dut lorik egiten  
egun guztia nigarrez,  
nahiz ta gogorik izan ez,  
tiraka nauka indarrez,  
buruaz beste egin behar dut  
zuri gauza bat esanez,  
mundu hontatik banoa eta  
nirekin etorri zaitetz. (bis)

6

Pentsamenduek beldurtzen naute,  
hitzegiteko ez naiz gai,  
ispiluaren aurrean nago  
hainbeste pena ta domai,  
indar guztiak joanak zaizkit  
bizi poz oro ere bai,  
ez nago bat ere lasai,  
sentipen bortitzetan blai,  
azken epaiketaren zai,  
zuen ondotik banoa eta  
bizi zintezkete alai,  
zuen bizitza nerearekin  
amaitzerik ez baitut nahi. (bis)

**ON MANUEL  
 LEKUONA BERTSO-  
 PAPER LEHIAKETA**

**Maila: Helduak.**

**1. saria.**

**Autorea: Arkaitz Estiballes**

**Doinua: Goizian argia hastian**

*Izan nahi  
 nuke*

1  
 Idazten dizkizut hemen  
 hamaika bertso lerdin  
 preso dauden sentimenduak  
 askatzeko hain zuzen,  
 lanbide batzuk aipatzen ditut  
 zeu ohartu zaitezzen  
 zenbat gauza izan nahi dudan  
 eta zer gutxi naizen!

2  
 Izan nahi dut MARINELA,  
 hartu nire batela,  
 eta tatuaje txiki bat  
 egingo dut ahal dela  
 zure izena jartzen duena  
 itsasoak bezela  
 nire azalak senti dezan  
 zuren laztan umela.

3  
 Izan nahi nuke OKINA  
 eta egin ahalegina  
 neure eskuekin lantzeko  
 sentipenen irina  
 gozo igurtzi  
 ondoren utzi  
 zelako ogi fina  
 nire bihotzeko labean  
 berotzeko jakina.


4  
 "Kololedun tximeleta"  
 "Lur gozodun planeta"  
 "Maitasunaren iturritik  
 sortu zaren erreka"  
 askoz hoBeto  
 zu omentzeko  
 izan nahi dut POETA  
 eta zure gorputz osoa  
 poesiaz fereka.

5  
 Izan nahi nuke SOLDADU  
 neure burua saldu  
 lubakietatik maitasun  
 telegramak bidaldu  
 ta zure aurka  
 egin burruka,  
 irabazi zein galdu  
 balak diren zure Musuei  
 alkondara zabaldu.

6  
 Izan nahi dut ASTRONAUTA  
 izan eder bat hauta  
 bizi osoa bertan eman  
 ilargiari zaunka,  
 ta azkenean  
 ustekabeen  
 joko dut zure aurka,  
 zure grabitate indarrak  
 harrapatuik nauka.

7  
 Egin nahi dut gogoeta  
 mila ta bat olgeta,  
 maitasunaren Ramadana  
 betierako debeka,  
 nire Hegira  
 sortzen ari da,  
 izan nahi dut PROFETA  
 zure bernean aurkitzeko  
 bekatuaren "Meca".

8  
 Izan nahi nuke ARTISTA



zirkuko trapezista  
 hainbat maite dudan bizia  
 uneoro arriska  
 sarerik gabe  
 jauzi suabe  
 lurrerantza jeitsi bista  
 eta zu izatea gero  
 ni hilko nauen pista.

9  
 Nahi nuke APAIZ bihurtu,  
 sekula ez makurtu,  
 nire kastitate botuak  
 behin ta berriz apurtu,  
 zugan sinetsi  
 gaur, bihar, etzi,  
 santu guztiak urtu  
 eta euren lekuan zure  
 edertasuna gurtu.

10  
 Izan nahi nuke PIRATA,  
 itsasoak zeharka  
 Ron-a edan eta abesti  
 debekatuak kanta  
 zeru erdira  
 jarri begira  
 begi bat partzez tapa  
 begi biek in ikusteko  
 lar ederra zara ta.

11  
 Badut mila buruhauste  
 kontrakorik ez uste,  
 aipaturiko ezer ez naiz  
 baina ez nago triste,  
 maite banauzu  
 sinest nazazu  
 NI NEU izan nahi nuke  
 naizen apurra eskaintzeko  
 irrifar horren truke.

## ON MANUEL LEKUONA BERTSO- PAPER LEHIAKETA

**Maila: Helduak**

**2. saria**

**Autorea: Pello Esnal**

**doinua: Hamalau heriotzena.**

### *Umetan izan nuen*

1  
 Umetan izan nuen  
 lagun bat hitzuna...  
 Elkarrekin pasatzen  
 genuen eguna.  
 ta gaua iristean,  
 nolako jarduna:  
 nik hari "bihar arte"...  
 hark niri "kutuna"...  
 Ez zitzaidan hain beltza  
 egiten iluna.

2  
 Hurrengo egunean,  
 esnatu orduko,  
 alboan nuen hura  
 goizaren lekuko.  
 Ez zela niregandik  
 inoiz urrunduko,  
 "hortxe izango nauzu,  
 beti inguruko,  
 zuk zer egingo eta  
 noiz kaleratuko".

3  
 Dena arrisku edo  
 arrisku-atari,  
 kalean zain genuen  
 galbide ugari.  
 Amak esango zidan:



Kontuz, Pedro Mari;  
errezatu aingeru  
goardakoari..."  
Keinu egiten nion  
neure lagunari.

4  
Batzuetan keinuka,  
bihurri-bihurri,  
bestetan hitz-jario  
ez lotsa, ez neurri.  
Hala ibiltzen ginen  
irri eta irri,  
zorionez gainezka  
eta nekez urri...  
dena nuen jostailu,  
dena poz-iturri.

5  
Baina egun batetan  
-nolatan ez galde-  
ustez egin naiz neure  
buruaren jabe.  
Nabarmen nenbilela  
irriz kalez kale,  
arren ez izateko  
horren ipuinzale,  
moldatuko nintzela  
aingerurik gabe.

6  
Lehiatila zabaldu  
nion zalantzari  
eta atea itxi  
betiko hitzari.  
Laster bihurtu nintzen  
beldur-mezulari,  
orbelaren antzeko  
herio-dantzari,  
dardara eginkizun  
eta lurra sari.

7  
Geroztik hemen nabil,  
ez ipuin, ez zeru,  
aingeruak deabru,

etsaiak aingeru.  
Egin ere egin naiz  
amets-injineru;  
baina, hutsa oinarri  
t' aitortza eredu,  
zoriongintzan ezer  
gutxi dezakegu.

8  
Noizbait zabaldu nuen  
berriz lehiatila,  
haizeak bizkortuko  
zidan bihotz hila.  
Inoiz entzun izan dut  
ahots bat isila:  
behingoz zulo beltzetik  
atera nadila  
gaztetan galdutako  
lagunaren bila.

9  
Gaztetan galdu nuen  
lagun bat gozoa...  
Haren bila daramat  
udazken osoa.  
Bi belarriak gortzen  
baldartzen pausoa,  
nekea bihotzean,  
begian lausoa...  
Zeinek zaindu behar du  
aitona gaixoa?



## XII. BASARRI SARIA

Antolatzaile: Zarauzko Udala. Euskara Zerbitzua

Herria: Zarautz

Data: 1996ko iraila.

Maila: Bakarra.

1. Saria

Autorea: Pello Esnal.

Doimua: Urxo xuri polit bat

### *Bertso berriak marraskilo batek jarriak.*

1

Ni ere izan nintzen  
marraskilo gazte,  
Ai, zenbat gau ta egun  
ametsetan triste!  
Oroipen gazi-gezak  
ditut gaur albiste.  
Iluntasun lorrean  
isiltasun eske.

2

Batzuetan taldean,  
bestetan aparte,  
pozik ibiltzen nintzen  
hutsartez hutsarte.  
Parranda guztietan  
hartzan nuen parte  
istripu gaizto hura  
gertatu zen arte.

3

Harri batek pitzatu  
zidan etxe-gaina  
indarrrik gabe utzi  
belarriko zaina.  
Geroztik arrastaka  
daramat orbaina,

oraindik ere zerbait  
entzuten dut baina.

4

egun haietaz ez naiz  
sekula ahaztuko:  
ez nuela bihotza  
tristuraz hustuko;  
helmuga amets baina  
bideari uko,  
etxean sartzen nintzen  
atera orduko.

5

Helmuga beti urrun,  
urruna ,urruti,  
gurpil zoroak irrist  
lerde eta muki.  
Halako gau batean,  
bihotza izuti,  
negarrez hasi nintzen:  
Jainkoa erruki".

6

Norbaitek entzun zidan  
otoitz isil hura,  
esperantza bihurtu  
barruko tristura.  
Nahiz eta lehengoa  
izan itaxura,  
orain hurbilago dut  
bakearen muga.

7

Nahiz eta gogor didan  
eraso bizitzak,  
gero ta neureago  
ditut bake-printzak;  
noizbait ikasi baitu  
belarri murrizak  
zehatz-mehatz bereizten  
hotsak eta hizak.

8

Nola egunez ala  
gauaren hotzean,



neure baitan biltzen naiz  
sari otoiitzean;  
hots guztiak isiltzen  
diren bakoitzean,  
kantu bat entzuten dut  
bihotz-bihotzean.

9  
Kantua dut bizipoz,  
uda eta negu.  
doinua hitz-iturri  
ta hitza sosegu.  
Bizitza den bezala  
onartzen badugu,  
marraskiloek ere  
asko dezakegu.

## XII. BASARRI SARIA

2. Saria

Autorea: Nikolas Zendoia

Doinua: Ai, hori begi ederra.

*Bertso sorta:  
Xoxokumeak  
(Amar egun aiek  
gogoan:  
uztailaren 4tik 13ra)*

1  
Gure mutikoarengan  
nola zerbait suma dedan,  
galde egin diot zer dan.  
"aita xoxo bat aurkitu degu

oraindik ez daki egan".  
"jaso ezazu ta jan eman  
ea aundia azten da".

2  
Ondorengo egunetan,  
mutiko triste auetan,  
beti beren eskuetan.  
Esaten nien xoxoak ori  
txarra duala umetan.  
Bero bazan, zast! uretan,  
gaixoa otzak gauetan.

3  
Xoxo gaztea txepeldu,  
gauetz ez baitzen epeldu  
orra aulezia eldu.  
Diz-diz egiten zizuten luma  
politik ere ximeldu.  
Begira nintzen goibeldu,  
ta errukia gailendu.

4  
Goizean bi ogi-zopa  
nolatan zuri ez opa?  
Saiatzen zinan mokoka.  
Eta ondoren zeure txokora  
bazoazela saltoka,  
isiltasunean koka..  
ni neure lanera ospa.

5  
zu pixkortu ta zu pixtez  
pozten naiz txio-albistez,  
aseko zaitut alpistez.  
Zeñen leiala zeran, xoxoa,  
gizonarengan sinistez!  
Ez naukazu une tristez  
zorion ori iristez.

6  
Pozak iraun zuen gutxi,  
zuk bizitzeari utzi,  
lumaz juxtu-juxtu jantzi.  
Ego motx aiek asita zeuden  
noiznai zabaldu ta itxi,



airez ibiltzeko bitxi...  
baina ez ziñan iritsi.

7

Goiz batean sukaldera,  
egunarekin batera,  
eltzen nintzan gosaltzera.  
Salto mantxo bat egin zenidan  
mai gañetik magalera,  
lagunaren babesera,  
"gaixo nago" esatera.

8

Egun-erdiz bazkaltzera,  
etorri nintzan etxera,  
ta xoxoa buruz bera.  
Itota jan bear nindutela:  
"Zer ematen jadun zera?"  
Neurtu naute Judasera,  
iltzaile baten antzera.

9

"Orain nola aperrik dan,  
mamar kanpairikan din-dan  
ez zazutela jo nigan.  
Zer arraiotan busti zenduten  
baldeko uretan bitan?"  
Entzun egin ote zidan?  
Eskuetan il zitidan.

10

Lumaz osatu paparra  
bai eta zure kalparra,  
bazeunden naiko azkarra.  
Ni neu izanik zuri laguntzen  
aritu naizen bakarra,  
gero neuri il bearra...  
kenduko ez zaidan arra.

11

Etxekoen erasoa:  
"maite genduan xoxoa,  
zuk il diguzu gaixoa"  
Ongi egiten jardun ta gero  
ez naute ontzat jasoa.  
Aurka famili osoa

aserrearen lazoa.

12

Maitasuna nuen zugan  
eta astindu zintudan  
bizitza motxaren mugan.  
Baiña zer egin ote dizute  
edo min eman dizudan?...  
emen uzten nauzu dudan,  
jaio ta hil zera udan.

13

Gogoan daukat malkoa,  
bazkalondo artakoa,  
zuri isuritakoa.  
Nere eskutan eman zenduan  
azkeneko ostikoa,  
xoxo beltz biotzekoa.

14

Semetxo, zaitut nabaitzen  
nolazotinka zabilten  
ta ez zarela isiltzen.  
Berdegunera geiago datoz,  
begira nola dabilten.  
Oriek ez dira iltzen...  
Laga xoxoei bizitzen.



## XABIER MUNIBE V. BERTSO-PAPER LEHIKETA

Antolatzaile: Xabier Munibe Ikastola. Udaberri  
Guraso Elkartea.

Herria: Aazkoitia  
data: 1996

Maila: Ertainak. 1. saria

Autorea: Ekaitz Goikoetxea

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

### *Arantzadun larrosa.*

1  
Aspaldi hartua nion  
etorkizunari usai,  
batzutan triste ta malenkoniz  
ta bestetan alai,  
gela honetan igaroz goizak  
sarri arratsak ere bai,  
ene bihotza beteko duen  
neska dotore baten zai. (bis)

2  
Adats horaila, begi urdinak  
eta irrifar gozoa,  
andereñoa jartzen didazu  
dantzaka gorputz osoa,  
nire altzoan eseri zara  
paregabeko usoa,  
ta hau izan da elkarenganatz  
emandako lehen pausoa. (bis)

3  
Tajututako azalpen batek  
izandako ondorena,  
hitz gozo hauek punpaka biziz  
jartzen didate barrena,  
maite dut zure irrifarrea  
ta zure gorputz lerdena,

ta muxua da adierazteko  
modurik egokiena. (bis)


4  
Maitasunaren lorategian  
guztia ez da larrosa,  
hautematen dut ikaskideen  
begiramendu zorrotza,  
nahiz ta muxu bat eman dizudan  
ekimenaz ez naiz lotsa  
sarri maitasun bat gordetzeko  
txikia baita bihotza. (bis)

5  
Ikasle eta irakasleen  
artean mugak badaude,  
gurea jolas hutsala denik  
ez zazu pentsa halere,  
egin ezazu ahalegintxo bat  
ni ulertzearen alde,  
buruarekin pentsatu arren  
bihotzaren menpe gaude. (bis)

6  
Kixkurtutako ile argia  
begi urdinen kontraste,  
zure bi ezpain bekatariak  
koxkaka jango nituzke,  
ikasle eta irakasleak  
izan behar ginateke,  
gizartearen kaiola itxian  
elkar maitatzeko aske. (bis)

7  
Nahiz ta hamaika lar eta sasi  
bidean zehar atera,  
dena lorrosa bihurtu dugu  
maitale nen antzera,  
horrenbestean pasatu zera  
egun batetik bstera,  
nire ametsa izatetikan  
ire neska izatera. (bis)

Orain Hipoteka Berrira aldatzea errentagarriagoa da



7 modalitateen artean, aukeratu zure beharretara ongien egokitzen dena. Interes-tasa finko eta aldakorrak. Goza ezazu ondorengo jaitsierez eta, modalitate baten bidez, mugatu igoerak. Eta onura zaitetz hipotekaz aldatzeak eragiten dituen murrizketaz.

Zatoz Euskadiko Kutxara eta kontuak atera. Denbora aurrera doan neurrian dirua galtzen ari zara.

Informazio gehiago  
900 555 900 zenbakian.



**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

# EUSKAL HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA



## Jakintza-iturri paregabea zure eskuetan

Mundu osoko eta Euskal Herriko historia, kultura, geografia, zientziak, pertsonaiak eta euskarazko hiztegi moderno eta zehatz bat

informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943-21.79.90 telefonora